



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko abenduaren 5a

42. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—11-23/LEY-00011. Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.
Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

11-23/LEY-00011. Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 149. artikulua ezarritakoa betez, agintzen da Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen. Foru lege proiektua 2023ko azaroaren 10eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

LEHENENGO ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehen artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 15.3 artikuluari g) letra gehitzen zaio. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“g) Sozietateek beren akzio edo partaidetzak, edo Merkataritza Kodearen 42. artikulua ildotik taldea osatzen duen edozein sozietateren akzio edo partaidetzak, jarduneko langileei doan edo merkatuko prezio normala baino merkeago ematea, baldin eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen hiru garren xedapen gehigarriaren 4. apartatuan jasotako enpresetako langileei aurretiaz emandako akzioen edo partaidetzen gaineko erosteko aukera baliatzearen ondorio bada, eta langile bakoitzari guztira emandakoaren zenbatekoa ez bada 50.000 eurotik gorakoa urtean”.

Zioak: Espainiako Gobernuaren enpresa emergenteen ekosistema sustatzeko legearen ildotik,

eta eremu berritzaileenetan talentua erakartzeko eta enpresa emergente berriak sortzeko, estimuluak ezartzen dira Nafarroa erakargarria izan dadin enpresa horiek kokatzeko eta horrek dakarren talentua erakartzeko, langileentzako pizgarrien bidez.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehen artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 18.1 artikuluari d) letra gehitzen zaio. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

«d) Behar bezala egiaztaturik dagoenean, foru lege honen 62.9 artikulua c) letran aipatutako pertsonak zaintzeko familiaren etxean lan egiten duten pertsonekin formalizatutako kontratuen ondoriozko ordainsariak direla eta, subjektu pasiboak zergaldian ordaindutako kopuruak. Lan egiten duen pertsonak lan-kontratua izan behar du eta Gizarte Segurantzako dagokion araubidean afiliatuta egon behar du. Muga lanbide arteko gutxieneko soldata izanen da».

Zioak: Neurri honen xedea da, lanaren etekin garbia zehazteko, gastu kengarritzat jotzea zenbait senide zaintzeko etxean bertan lan egiteko kontratatutako pertsonen ordaindutako ordainsariak. Izan ere, PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginak jada jasotzen du kontratu horien ondorioz Gizarte Segurantzaz kotizatze ordaindutako kopuruei aplikatu ahal zaien % 100eko kenkaria.

Neurri honen helburua da etxean lan egiteko pertsonen kontratazioa sustatzea eta iruzur fiskala edo bestelako iruzurrak saihestea, baita ezkutuko

ekonomia saihestea ere; eta, horretarako, kontratu horiei lotutako errentak azaleratu behar dira.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 25.2. artikulua 4. apartatua aldatzeko zuzenketa. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulaturako etekin garbi positiboa honela murriztuko da:

100eko 40, etxebizitza-erabilerarako higiezin errentamendutik heltzen denean. Portzentaje hori 100eko 50ekoa izanen da, toki administrazio eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkatutako udalerrietakoren batean kokatuta dagoenean etxebizitza.

100eko 70, etxebizitzarako erabiltzen diren etxebizitzaren errentamendutik ateratzen denean, errentamendu hori arau hauetan jasotako sozietate publiko instrumentalaren bitartez egina bada: Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikulua, eta Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 77. artikulua.

100eko 40, errentamenduaren xede den etxebizitzaren urteko alokairuaren zenbatekoa AJI-Alokairu Jasangarritasunaren Indizearen balioa baino handiagoa ez bada, eta kontratua behar bezala erregistratu bada Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuaren Erregistroan, Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 90. artikuluan xedatutakoan.

Subjektu pasiboak aitortutako etekinetan soilik aplikatuko da murrizketa».

Zioak: Neurri honekin lortu nahi da etxebizitzaren errentamenduetan lortutako etekinen murrizketa berreskuratzea, baina horiek aitortu dituzten zergadunentzat baino ez. Estatuan dagoenaren antzeko neurri bat da, eta:

- Pizgarria ematen da etxebizitzak errentan jartzeko, merkatuan etxebizitza gehiago jartzen dira, tratamendua hobeturik despopulazio-arriskuan dauden landa-eremuetan kokaturiko etxebizitzentzat.

- Alokairu-errenten moderazioa sustatzen du, eskaintza handitu eta tributazioa murrizten baitu; hala, errentariak prezio txikiagoak eskaini ditzake, zerga-kostu txikiagoa baitu.

- Errentariari emandako kenkariarekin osatzen du pizgarria.

- Alokairu-errentak azalarazteko balio du, aitortutako errentei baino ez baitaie aplikatzen.

Neurria bat dator Nafarroarekin mugakideak diren eta antzeko populazio-ezaugarriak dituzten eremuetan berriki onetsi diren pizgarriekin, zehazki, Arabako Lurralde Historikoaren PFEZaren araudian onetsitakoekin.

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehen artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 35.3.2 artikuluari paragrafo bat gehitzen zaio amaieran. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“Halaber, behar bezala egiazaturik dagoenean, foru lege honen 62.9 artikulua c) letran aipatutako pertsonak zaintzeko familiaren etxean lan egiten duten pertsonekin formalizatutako kontratuen ondoriozko ordainsariak direla-eta, subjektu pasiboak zergaldian ordaindutako kopuruak kenduko dira etekin garbia zehazteko. Lan egiten duen pertsonak lan-kontratua izan behar du eta Gizarte Segurantzako dagokion araubidean afiliatuta egon behar du. Muga lanbide arteko gutxieneko soldata izanen da”.

Zioak: Neurri honen xedea da, enpresa edo lanbide jardueren lanaren etekin garbia zuzeneko zenbatespen arruntaren bidez edo, emisioz, zuzeneko zenbatespen bereziaren bidez zehazteko, gastu kengarritzat jotzea zenbait senide zaintzeko etxean bertan lan egiteko kontratatutako pertsonen ordaindutako ordainsariak. Izan ere, PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginak jada jasotzen du kontratu horien ondorioz Gizarte Segurantzaren kotizatutako ordaindutako kopuruei aplikatzen ahal zaien % 100eko kenkaria.

Neurri honen helburua da etxean lan egiteko pertsonen kontratazioa sustatzea eta iruzur fiskala edo bestelako iruzurrak saihestea, eta, horretarako, kontratu horiei lotutako errentak azaleratu behar dira.

5. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehen artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 36.A) artikuluen 3. apartatua aldatzen da. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“3. A).2 apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulaturako etekin garbi positibotik haren 100eko 10 kenduko da”.

Zioak: Zuzeneko zenbatespen erraztuko zergadun autonomoen zama fiskala arintzea, halako moduz non egiten duten jarduera eta enplegua sortzeko ahalmena babesten den, pandemiaren krisiak eta egungo inflazio-egoerak gogor kolpatutako kolektibo horri bereziki.

6. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehen artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 36.A) artikuluari apartatu bat –laugarrena– gehitzen zaio. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“4. Jarduera ekonomikoak kokatuta daudenean toki administrazio eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkatutako udalerrri batean, aurreko apartatuak adierazten duen portzentajea 100eko 20koa izanen da.

Aurreko apartatuan xedatua kokaleku fisiko iraunkorra udalerrri horietan daukaten jarduera ekonomikoari bakarrik aplikatuko zaie, modu presentzian eta bezero edo erabiltzaileekiko zuzeneko harremanean egiten direnean, aipatu udalerrietatik”.

Zioak: Neurri honen xedea da pizgarriak ematea jarduera ekonomiko edo profesional berriak ezarri eta garatzeko despopulazio-arriskuan dauden udalerrietan, eskualde horietan tokiko ekonomia eta lanpostu berrien sorrera sustatzeko Nafarroako Foru Komunitatearen inguruko lurraldeek, esaterako Arabak, araudian horri buruz ezarritakoaren antzera.

7. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehen artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 36.B) artikuluko 3. apartatuaren a) letra aldatzen da. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“a) Ez dira kengarriak izanen ekarpenak eta narriaduragatiko galerak”.

Zioak: Neurri honen helburua da, jarduera ekonomikoaren etekin garbia zuzeneko zenbatespen berezian zehazteko, jarduera ekonomikoari lotutako aktiboen balioaren galerarekin edo gutxitzearekin dagokion amortizazioaren ondoriozko gastua gastu kengarritzat jotzea.

8. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehen artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 36.B) artikuluko 4. apartatuaren a), b) eta c) letrak aldatzen dira. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“a) Oro har, etekinaren 100eko 20.

Jarduera ekonomikoak kokatuta daudenean toki administrazio eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkatutako udalerrri batean, 100eko 25ekoa izanen da.

“b) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jarduerak badira, etekinaren % 45.

c) Salgaien errepide-garraioko jarduerak badira, etekinaren 100eko 55. Ondorio horietarako, salgaien errepide-garraiokat hartuko dira maiztaren 28ko 7/1996 Foru Legearen bidez onetsi ziren ekonomia-jardueren gaineko zergaren tarifen 722. epigrafean ageri direnak”.

Zioak: Neurri honen bidez, zuzeneko zenbatespen berezian jarduera ekonomikoaren etekin garbia zehazteko aurrez ikusitako gastu orokorra gehitu nahi da, bai jardueretarako oro har, are gehiago despopulazio-arriskuan dauden horietarako, bai nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako eta salgaien errepide-garraioko jardueretarako, energiaren eta erregaien prezioa garestitzeak sektorean izan dituen ondorio kaltegarri nabarmenak arintzeko.

9. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Lehen artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 41. artikuluari apartatu bat – laugarrena– gehitzen zaio. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“4. Artikulu honen 1. apartatuak aipatzen duen eskurapen-balioa eguneratu eginen da, horretarako aplikatuz foru lege honen hirurogeita seigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako koefizienteak, aintzat harturik, nagusiki, kontsumorako prezioen indizeak nolako bilakaera izan duen ondare-elementuak eskuratu ziren egunetik, eta horien eskualdaketa-ekitaldirako nolakoa kalkulatu den. Honela aplikatuko dira koefizienteak:

a) Artikulu honen 1. apartatuko a) eta b) letrek aipatzen dituzten zenbatekoen gainean, aintzat harturik zer urtetan ordaindu diren.

b) Amortizazioen gainean, aintzat harturik zer urteri dagozkion”.

Zioak: Neurri honek asmotzat du PFEZean zergapeturik dagoen ondare-gehikuntzatzat hartzea, bai doako eskualdaketa-erregimen bidezkoetan, zergadunek errealki lorturiko etekina, Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikulua jasotzen duen ahalmen ekonomikoaren printzipioarekin bat.

10. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Lehen artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 42. artikulua aldatzen da. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“42. artikulua. Irabazizko eskurapena edo eskualdaketa.

Eskurapena edo eskualdaketa irabazizkoa izan denean, kasuan kasuko balioak izanen dira oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren arauen aplikaziotik eratorriko liratekeenak. Merkaturiko balioa ezin dute gainditu.

Hala ere, orainaldi-efektudun kontratu edo oinordetza-itunetatik eratorriak diren heriotzagatik irabazizko eskurapenetan, horien onuradunak ondasun eskuratuak eskualdatzen baditu oinordetza-ituna egin edo kausatzailea hil zenetik (lehenago gertatu bada) bost urte iragan aurretik, kausatzailearen posizioan subrogatuko da onda-

sunen eskurapen-balioari eta -datari dagokienez, balio hori aurreko paragrafoan aurreikusitakoa baino txikiagoa izanez gero.

Balio horiei, kasua bada, 41. artikuluko 1.b), 2. eta 4. apartatuetan xedatutakoa aplikatuko zaie.

39.4.c) artikuluan aipatzen diren irabazizko eskurapenetan, dohaintza-hartzailea dohaintza-emailearen posizioan subrogatuko da ondasun horien eskurapen-balioei eta -datei dagokienez.”

Zioak: Neurri horren asmoa litzateke inflazioaren eragina aintzat hartzea, ez zergapetzearren pertsona fisikoei suertatzen zaizkien ondare-gehikuntzak, etekin-kalkulua egiten denean dirutan adierazitako eskurapen-balioaren eta eskualdaketa-balioaren arteko diferentzia zorrotzetik eratorzen den gehikuntzaren gehiegizko zenbatespenean oinarrituta.

11. ZUZENKETA**EH BILDU****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Lehen artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62.2. artikulua aldatzen da.

“62. artikulua. Kuotako kenkariak

2 Etxebizitza-errentamenduaren ondoriozko kenkaria.

EHuneko 15, gehienez ere 1.500 euro urteko, subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko helbidea den etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu dituen diru kopuruena, betiere ondoko baldintzak tarteko baldin badira:

– Subjektu pasiboak zergaldian ez izatea 30.000 euro baino gehiagoko errentarik, salbuesiak bazter utzita.

– Zergaldian alokairu kontzeptuan ordaindutako diru-kopuruak, salbuesiak kenduta, subjektu pasiboaren errenten 100eko 10 gainditzea.

Kenkari hori 100eko 20koa izanen da, gehiengoa urteko 1.600 eurokoa izanik, zergaldian zehar subjektu pasiboaren ohiko bizileku den etxebizitzaren alokairuagatik ordaindutako kopuruen gain, baldin eta subjektu pasibo horrek, aurreko baldintzak beterik, 30 urte baino gutxiagoko adina badauka edo 71.1.c) artikulua aipaturiko familia-unitate bateko kide bada, salbu eta, azken kasu horretan, aita eta ama elkarbizitzan badaude edo seme-alaba amankomunen gaineko zaintza partekatua badute”.

Zioak: Etxebizitza-errentamenduen ondoriozko kenkaria hobetzea ohiko bizilekua bada. Kenkaria aplikatu ahal izateko errenten muga 30.000 euroan mantentzen da; izan ere, 340.000 aitor-tzaile gutxi gorabehera (guztien % 75a) muga horren barruan sartzeko dira.

12. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehen artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62.2. artikulua aldatzen da. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“2. Etxebizitzaren alokaruagatikoko kenkaria:

a) Subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzen badu, zergaldian ordaindutako diru kopuruen % 20ko kenkaria aplikatu ahal du; gehienez ere 2.000 euroko kenkaria urtean.

b) Aurreko a) letran ezarritakoa gorabehera, honako kenkari berezi hauek ezartzen dira:

i) Familia ugariaren titular diren zergadunen kasuan, aurreko a) letrak aurreikusten duen kenkaria 100eko 25ekoa izanen da, kenkari-muga 2.400 eurokoa duela.

ii) Hogeita hamabost urte baino gutxiago dituzten edo familia ugari baten titularrak diren zergadunentzat aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria % 25ekoa izanen da, eta urtean 2.400 eurokoa gehienez ere.

iii) Zergadunek beren ohiko etxebizitza kokatu dutenean toki administrazio eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkaturiko udalerritatean, aurreko a) letrak aurreikusten duen kenkaria 100eko 30ekoa izanen da, hileroko kenkari-muga 2.400 eurokoa duela.

c) Apartatu honek araututako kenkaria aplikatzeko, ordaindutako kopuruetatik kenduko da zergadunak etxebizitzaren errentamendurako jasotako dirulaguntzen zenbatekoa, halakorik jaso den kasuetan, zerga honi buruzko araudia aplikatuta salbuetsita dauden heinean.

d) Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zergadunaren adina edo familia ugariaren titulartasuna zehazteko, zerga sortzen den egunean duen egoerari erreparatuko zaio.

Aurreko b) letrako iii) apartatuak xedatzen duena aplikatzeko, beharrezkoa izanen da, errentariaren heriotzaren kasuetan izan ezik, errentariak zergaldi osoan zehar bere egoitza edukitzea toki administrazio eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkaturiko udalerrian.

e) Baterako tributazioa aukeratzen bada eta kenkaria aplikatzeko eskubidea duen pertsona bat baino gehiago badago, eta batzuk 30 urtetik behar-rakoak badira eta beste batzuk hortik gorakoak, aurreko b) letraren ii) apartatuan ezarritako ehunekoa eta muga aplikatuko dira.

f) Erabaki judizialaren bidez zergadunari familia-etxebizitzaren errenta osoa ordaintzeko bete-beharra ezarri bazaio, zergadunak eskubidea izanen du artikulua honetan aipatutako kenkaria baliatzeko bere autolikidazioan. Betebehar hori bi zergadunei badagokie, kenkaria bien artean hainbanatuko da eta bakoitzaren autolikidazioan aplikatuko da egoki den proportzioan, apartatu honetako a) letran ezarritako ehunekoarekin eta mugarekin, salbu eta aurreko b) letran ezarritako betekizunak betetzen dituztenean, zeren eta kasu horretan eskubidea izanen baitute letra horretan adierazitako ehunekoa eta muga aplikatzeko”.

Zioak: Etxebizitzen merkatuaren egoerak eta, zehazki, alokairuen merkatuaren egoerak zaildu egiten dute etxebizitza bat eskuratzeko aukera, eta inguruabar horrek zaildu egiten du pertsonarentzat eta gizartearentzat funtsezkoak diren erabakiak hartzea, hala nola emantzipatzea edo familia bat osatzea. Proposamen honek xede du errentamendua faboratzea hain zuzen ere etxebizitza bat era horretan eskuratzeko zailtasunik gehienak topatzen dituzten artean, batez ere gazteak; eta, horrez gain, zergadunek ohiko egoitza despopulazio-arriskuko landa-eremuetan ezar dezaten pizgarriak ematea; hori guztia, egungo kenkaria hobeturik, xede hartuta gai honetan Araba, Gipuzkoa edo Bizkaiko lurralde historikotako araudian ezartzen diren pizgarrien antzeko zertzeladak izan ditzan.

13. ZUZENKETA

EH BILDU

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehen artikuluari hamaikagarren apartatua aldatzeko zuzenketa. Horren bidez, PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62.9. artikulua aldatzen da.

9 Kenkari pertsonal eta familiarrak.

a) Gutxieneko pertsonalarengatik.

(...)

“c) 150 euro, zergaldian 30.000 euro baino gutxiagoko errentak, salbuetsiak barne, dituzten subjektu pasiboentzat”.

Zioak: 30.000 euro baino gutxiagoko errenten tributazioa hobetzea, gutxieneko pertsonalarengatik kenkaria handituta.

14. ZUZENKETA

EH BILDU

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehen artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62.9. artikulua aldatzen da.

“9. Kenkari pertsonal eta familiarrak.

(...)

c) Ondorengo eta aurreko ahaideak, beste ahaide batzuk eta desgaitasuna duten pertsonak zaintzeagatik:

Kengarria izanen da subjektu pasiboak zergaldian ordaindu dituen kopuruen ehuneko 75, kopuru horiek dagozkienean honako pertsonak etxean zaintzeko lanetan diharduten pertsonekin formalizatutako kontratuen ondorioz enplegatzailearen kargura suertatzen diren Gizarte Segurantzarako kotizazioei:

a) Hamasei urte baino gutxiagoko ondorengo ahaideak. Ondorio hauetarako, ondorengo ahaideekin parekatuko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako moduan egindako tutoretza edo harreragatik subjektu pasiboarekin lotura duten hamasei urte baino gutxiagokoak. Ondorengo ahaideekin parekatuko dira, halaber, ebazpen judizial bidez subjektu pasiboaren zaintza eta jagoletzaren pean edo ordezkartzako kuradoretzaren pean dauden pertsonak, lehengo egoeretan ez daudenak.

b) Subjektu pasiboari eskubidea ematen dioten artikulua honetako b) letrako a) edo c) letretan aurreikusitako gutxieneko familiarrengatik kenkaria aplikatzeko, edo hamahirugarren xedapen iragankorrean ezarritako baldintzetan pertsona lagunduaren izaera duten ahaideengatik kenkaria aplikatzeko.

c) Aurreko ahaideak, ezkon-ahaidetasunezkoak direnak; anai-arrebak; osaba-izebak. Betiere, artikulua honen b) letrako a) edo c) letretan aurreko ahaideentzat ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Kenkari hori ere aplikatzen ahalko da subjektu pasibo bera zaintzeko formalizatutako kontratuen kasuan, hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna frogatzen badu”.

Zioak: Kopuru hori pandemiako egoera aintzat hartuta igo zen eta, gehiegizkoa izanik, beharrezkoa zuzendu eta ehuneko txikiagoa ezartzea.

15. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari beste apartatu bat gehitzeko zuzenketa. PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62. artikuluari 15. apartatua gehitzeko zuzenketa. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“15. 0-3 urteko haur hezkuntzako ikastetxeetako gastuengatik kenkaria.

Hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten zergadunek, artikulua honen 9. apartatuko b) letran aurreikusitako gutxieneko familiarrengatik kenkaria aplikatzeko eskubidea badute eta beren kontura edo besteren kontura jarduera bat egiten badute eta jarduera horren ondorioz Gizarte Segurantzako edo mutualitateko araubidean alta emanda badaude, hiru urtetik beherako semea edo alaba zaintzeko gastuengatik zergaldian ordaindutako zenbatekoak kendu ahal izanen dituzte, urteko 1.100 euroko mugarekin.

Seme-alaba adingabeak hiru urte betetzen dituen zergaldian, artikulua honetan aurreikusitako kenkaria aplikatu ahal izanen zaie adin hori bete ondoren egindako gastuei, haur-hezkuntzako bigarren zikloa hasi aurreko hilabetera arte.

Ondorio horietarako, zaintza-gastutzat hartuko dira haurtzaindegiei, etxe lagunei eta adingabe horien aurreinskripzioak eta matrikulak baimendutako beste haur-hezkuntzako zentro batzuei ordaindutako zenbatekoak, asistentzia, ordutegi orokor eta zabalduan, eta elikadura, baldin eta hilabete osoko gertatu badira eta gauzako lanaren etekintzat hartzen ez badira, lege honen 15. artikulua 3. apartatuko b) letran xedatutako aplikatuz. Halaber, ordaindutako kopuruetatik zergadunak etxebizitza alokatzeko jasotako dirulaguntzen zenbatekoa kenduko da, halakorik jaso den kasuetan.

Abenduaren 31n Familia Ugariari buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen arabera familia ugariaren edo familia gurasobakarraren titular diren zergadunen kasuan, Nafarroako Foru

Komunitatean guraso familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legean ezarritakoaren arabera, artikuluko honen lehen paragrafoan aurreikusitako muga 1.296 eurokoa izanen da.

Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute kenkaria aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan. Berdin jokatuko da ondorengo ahaideen zaintza partekatua kasuetan”.

Zioak: Etxe askotako egoera ekonomikoak okerrera egin du, pandemiaren krisiaren ondorioz, aurrena, eta haren ondoko inflazioaldi bortitza dela-eta, ondoren. Hala, prezioen igoerari duela hilabete asko hasitako interes-tasena ere gehitu behar zaio. Askotan, horrek erosahalmenaren galera handia ekarri du, bai eta bizitza pertsonalaren eta lanaren arteko uztartzea ere. Kenkari horrekin batera pizgarri bat ematen da zerbitzu baten prestazioa errazteko. Zerbitzu hori onuragarria da ematen duenarentzat, bai eta erabiltzen duenarentzat ere, familia-bizitza eta lan-erloko bizitza bateragarri egiteko bidea ematen du eta ahalmen ekonomiko errealearen murrizketa arintzen du, haur-hezkuntzako eskolei ordainduta-ko zenbatekoak gauzatzeko lanaren etekintzat hartzen ez diren neurrian.

16. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari beste apartatu bat gehitzeko zuzenketa. PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62. artikuluari 16. apartatua gehitzeko zuzenketa. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“16. Kenkaria, kenkarirako eskubidea ematen duten hiru ondorengo ahaide edo gehiago izateagatik eta familia ugariarengatik zein familia gurasobakarrarengatik.

Abenduaren 31n Familia Ugariari buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen arabera familia ugariaren edo familia gurasobakarraren titular diren zergadunek, Nafarroako Foru Komunitatean guraso familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legean ezarritakoaren arabera, eskubidea izanen dute 520 euroko kenkaria aplikatzeko.

Familia Ugariari buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen arabera kategoría bereziko familia ugariaren edo kategoría bereziko familia gurasobakarraren titular diren zergadunen

kasuan, Nafarroako Foru Komunitatean guraso familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legean ezarritakoaren arabera, kenkaria 780 eurokoa izanen da.

Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute kenkaria aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan. Berdin jokatuko da ondorengo ahaideen zaintza partekatua kasuetan”.

Zioak: Etxe askotako egoera ekonomikoak okerrera egin du, pandemiaren krisiaren ondorioz, aurrena, eta haren ondoko inflazioaldi bortitza dela-eta, ondoren. Hala, prezioen igoerari duela hilabete asko hasitako interes-tasena ere gehitu behar zaio. Kasu askotan, horrek erosahalmenaren galera argia ekarri du. Horrek guztiak inpaktu berezia dute familia ugarietan eta gurasobakarraren, diru-sarrerak lortzen dituztenek ardurapean dituzten pertsonen kopuruagatik lehenengo kasuan, eta familia gurasobakarraren ardura duen pertsonaren sarre-
rak ordeztan edo osatzen dituen sarrerarik ez dagoelako, bigarrean. Kenkari hau onuragarria izanen litzateke etxe horientzat, baina, halaber, pizgarri gehigarri bat da jaiotza-tasa suspertzeko egoera batean zeinean, egoera ekonomikoaren ondorioz, oraindik ere gehiago beheratu baitaiteke, eta gizar-tea negu demografikora gerturatu.

17. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari beste apartatu bat gehitzeko zuzenketa. PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62. artikuluari 17. apartatua gehitzeko zuzenketa. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“17. Jarduera ekonomiko bat hasteagatik kenkaria.

a) 35 urte baino gutxiagoko adina duten zergadunek lehenbizikoz hasten dutenean jarduera ekonomiko berri bat, bere garapenerako beharrezkoak diren baliabide pertsonal eta materialak dituen, 2.500 euroko kenkaria aplikatu ahal dute.

Jarduera ekonomiko berria zergadun batek baino gehiagok hasten duenean, aurreko lerrokadak aipaturiko kenkaria parte berdinetan banatuko da zergadun guztien artean, zein ere den haien adina, baldin aipatu jarduera ekonomikoa ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean egiten badute. Kenkariaren banaketa hori egin ondoren, dagoen partean aplikatuko dute 35 urte baino gutxiagoko adineko zergadunek.

b) Jarduera ekonomikoa hasten denean toki administrazio eta despopulazioaren alorrean esku-dun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkatutako udalerrri batean, kenkaria 2.500 eurokoa izanen da, zein ere den jarduera ekonomiko berri bat lehenbikoz hasten duen zergadunaren adina, eta zein ere den jarduera horretan dihardutenen kopurua.

Emakumezkoak izateaz gain aipatu jarduera ekonomikoan ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean jardun eta aurreko paragrafoko betekizunak betetzen dituzten zergadunek zilegi izanen dute 1.000 euro handitzea aurreko paragrafoak aipaturiko kenkaria.

Aurreko bi paragrafoetan xedatua kokaleku fisiko iraunkorra udalerrri horietan daukaten jarduera ekonomikoari bakarrik aplikatuko zaie, modu presentzialean eta bezero edo erabiltzaileekiko zuzeneko harremanean egiten direnean, aipatu udalerrietatik.

c) Jarduera ekonomiko berri bat hasi dela jo ahal izateko, beharrezkoa izanen da errealki eta benetan agertzea jarduera ekonomiko berri bat.

d) 1. paragrafoan aurreikusitako zergadunadina zehazteko, zergaren sortzapen-eguneko egoerari erreparatuko zaio.

e) Aurreko 1. eta 2. apartatuetan adierazitako zenbatekora bitarte kendu gabeko kopurua ondorengo bost urteetan amaitzen diren zergaldietako autolikidazioetan aplikatu ahal izanen da.

f) Artikulu honek aipatzen duen kenkariaren aplikazioa baldintzaturik dago jarduera ekonomikoa bi urtez gutxienik egitera eta jarduera ekonomikoa urte guztian zehar egitera; hortaz, ez dira onartzen sasoi-jarduerak edo asteburuetakoa.

g) Kenkari honen aplikaziorako ezarritako betekizunak ez betetzeak sortuko du bidegabeki kendutako kopuruak ordaintzeko betebeharra, kasuko berandutza-interesekin ordaindu ere. Ordainketa hori egiteko, behar den kopurua gehituko zaio ez betetzea gertatu den zergaldiko kuota diferentzialari".

Zioak: Neurri honen bidez PFEZean aplikatzeko kenkari berri bat ezarri nahi da, ekintzailatza sustatzeko eta jarduera ekonomiko berrien sorkuntzari bultzada emateko, batez ere zergadun gazteen artean, eta despopulazio-arriskuan dauden landa-eremuak garatu eta suspertzeko.

18. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren lehen artikuluarri hamar bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

Lehen artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Hamalau bis. 75. artikulua, 4. araua.

"4. 71.1.c) artikuluan aipatzen diren familia-unitateen kasuan, aitari edo amari dagokion gutxieneko pertsonalarengatikoko kenkaria, 62.9.a) artikuluan ezarria, 668 euro handituko da. Handitze hori ez da gertatuko aita eta ama elkarrekin bizi direnean, ez eta zaintza partekatua dagoenean ere".

Zioak: Laugarren araua aldatzen da, gutxieneko pertsonalarengatikoko kenkariaren gehikuntza jasotze aldera familia-unitate gurasobakarren kasuan; izan ere, gutxieneko pertsonal eta familiarrengatikoko gainontzeko kenkariak bezalaxe, ehuneko 3 gehitu beharra dago 2023rako eta ehuneko 3 gehiago 2024rako.

19. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuaren lehen artikuluko hogeita zortzi apartatua aldatzeko zuzenketa.

Lehen artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Hogeita zortzi. Hirurogeita seigarren xedapen gehigarria, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

"Hirurogeita seigarren xedapen gehigarria. 2023an aplikatu beharreko gutxieneko pertsonal eta familiarrengatikoko kenkaria.

2023an, honako hauek izanen dira kenkari pertsonalak eta familiarrak:

a) Gutxieneko pertsonalarengatik:

Oro har, gutxieneko pertsonalarengatik enkaria subjektu pasibo bakoitzeko 1.052 eurokoa izanen da urtean. Zenbateko horri kopuru hauek gehituko zaizkio:

a') 256 euro, hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina duten subjektu pasiboentzat. Zenbateko hori 568 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina baldin badu.

b') 744 euro, desgaitasuna duten subjektu pasiboentzat, frogatzen badute % 33ko desgaitasuna edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa dutela. Zenbateko hori 2.677 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatzen duenean % 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duela.

c') 100 euro, zergaldian 30.000 euro baino gutxiagoko errentak, salbuetsiak barne, dituzten subjektu pasiboentzat.

b) Gutxieneko familiarrengatik:

Gutxieneko familiarrengatik enkariak hauek izanen dira:

a') subjektu pasiboarekin bizi den aurreko ahaide bakoitzeko, zeinak urtean ez duen jasotzen ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino errenta altuagorik, errenta salbuetsiak kenduta, zenbateko hauetako bat:

Lehena. 256 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina badu edo, gazteagoa izanik, apartatu honetako c') letran aurreikusitako enkariak aplikatzeko eskubidea badu.

Bigarrena. 568 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina badu.

Baldin eta aurreko ahaide horiek familia-unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errenta-muga izanen da, familia-unitate osorako, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako bi.

Ukertuko da subjektu pasiboarekin bizi direla zentro espezializatuetan bizi diren aurreko ahaideak, ekonomikoki haren menpekoak badira.

b') Lehena) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino gehiagoko errentarik ez badu urtean jasotzen, salbuetsiak bazter utzirik:

– 469 euro urtean, lehenbizikoagatik.

– 497 euro urtean, bigarrenagatik.

– 711 euro urtean, hirugarrenagatik.

– 952 euro urtean, laugarrenagatik.

– 1.079 euro urtean, bosgarrenagatik.

– 1.249 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein ere den, baldin eta eskubidea ematen badu ondoko c') letran aurreikusitako enkariak baliatzen.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 625 euro urtean. Zenbateko hori 1.136 eurokoa izanen da urtean, baldin eta, aplikatzekoak diren arauen eta hitzarmenen arabera, adopzioak nazioartekoak badira. Adopzio kasuetan, kasuko enkaria aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan.

Bigarrena. Zergaldian 30.000 euro baino gehiagokoak ez diren errentak, salbuetsiak barne, dituzten subjektu pasiboentzat, 1. ordinaletako enkariaren zenbatekoa, subjektu pasibo bakoitzari dagokiona, honako eskala hau aplikatuz suertatzen den zenbatekoan handituko da:

a) 20.000 euro arteko errentak dituzten subjektu pasiboak: % 40.

b) 20.000,01 eurotik 30.000 euro arteko errentak dituzten subjektu pasiboak: % 40, ken subjektu pasiboak 20.000 eurotik gora duen errenta-gaindikinak azken kopuru horrekiko egiten duen proportzioa 50ekin biderkatzearen emaitza.

Emaitza gisa lortzen den portzentajea bi hamarretara biribilduta adieraziko da.

3) Subjektu pasiboarekiko elkarbizitzaren parekotzat joko da haren ondorengo ahaideek haren duten menpekotasun ekonomikoa, salbu eta aplikatzeko bada 59.3 artikuluan xedatutakoa.

c') Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko, haren adina zein ere den, 654 euro urtean, aurreko letren arabera bidezkoak diren zenbatekoek gain, baldin eta haiek urtean dituzten errentak, salbuetsiak kanpo, ez badira, kasuko zergaldian, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino handiagoak, frogatzen badute % 33 edo gehiagoko eta % 65 baino gutxiagoko desgaitasun-gradua. Zenbateko hori 2.291 eurokoa izanen da urtean, frogatutako desgaitasun-gradua % 65 edo gehiagokoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia-unitate baten parte badira, aurreko paragrafoan ezarritako

errenta-muga izanen da ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren (IPREM) halako bi, familia unitate osorako.

Aurreko b') eta c') letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideekin parekatuko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, harrera edo ordezkartzako kuradoretza kasuengatik subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak. Halaber, ondorengo ahaideekin parekatuko dira urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuaren 50.1 artikuluan ezarritako baldintzak beteta harreran izan zituztenekin adin-nagusitasunera edo emantzipaziora arte elkarbitzen jarraitzea libreki adosten duten pertsonak ere. Aipatu foru dekretuaren bidez, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen garapen partzialerako Erregelamendua onetsi zen. Gizarte-gaien arloko eskumena duen departamentuak eskaini beharko du egoera horren frogara. Halaber parekatuko dira ondorengo ahaideekin subjektu pasiboaren zaintza eta babesaren pean epailearen ebazpen bitartez dauden pertsonak, aurreko egoerez bestelakoetan daudenak.

Baldin bi subjektu pasibok edo gehiagok badute gutxienerako familiarrengatikoen kenkariak aplikatzeko eskubidea, horien zenbatekoa haien artean hainbanatuko da zati berdinetan, salbu eta b')2) letran ezarritako igoera. Ondorengo ahaideei dagokienez berdin jokatu da zaintza partekatua kasuetan.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaideekin edo ondorengoekin, gutxienerako familiarrengatikoen kenkaria gradurik hurbilenera aplikatuko zaie, non eta horiek ez duten ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino gehiagoko errentarik (salbuetsiak alde batera utzita), kasu horretan hurrengo graduko aplikatuko baitzaie.

c) 75. artikuluko laugarren erregelak aipatzen duen gutxienerako pertsonalarengatikoen kenkariaren gehikuntza 649 eurokoa izanen da".

Zioak: Aldaketa honako honetan datza: c) letra bat gehitzea, gutxienerako pertsonalarengatikoen kenkariaren gehikuntza jasotze aldera familia-unitate gurasobakarren kasuan; izan ere, gutxienerako pertsonal eta familiarrengatikoen gainontzeko kenkariak bezalaxe, ehuneko 3 gehitu beharra dago 2023rako.

20. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehen artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, hirurogeita hamargarren xedapen gehigarria txertatzen da PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginean. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

"Hirurogeita hamargarren xedapen gehigarria. 2024rako aplikatzekoak diren diruaren balio-galera zuzentzeko koefizienteak.

Foru lege honen 41. artikuluen 4. apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, kostu bidezko nahiz kostu gabeko eskualdaketen kasuan ondare-elementuen eskurapen-balioa kalkulatzeko, 2024an eginiko eskualdaketei aplikatzekoak diren gaurkotze-koefizienteak honako hauek izanen dira:

Ekitaldiak	Koefizienteak
1994. urtea eta aurrekoak	1,945
1995	2,066
1996	1,989
1997	1,945
1998	1,902
1999	1,850
2000	1,787
2001	1,721
2002	1,660
2003	1,614
2004	1,567
2005	1,517
2006	1,467
2007	1,426
2008	1,370
2009	1,366
2010	1,344
2011	1,303
2012	1,274
2013	1,254
2014	1,252
2015	1,252
2016	1,252
2017	1,228
2018	1,208
2019	1,197
2020	1,197
2021	1,161
2022	1,074
2023	1,036
2024	1,000

Zioak: Neurri hori kalkulu-doikuntzako sistema bat ezartzekoa da, Nafarroako Foru Komunitatearen inguruko lurraldeek eta, zehazki, Euskadiko hiru lurralde historikoek PFEZari buruzko araudian horri buruz tankeratzen dutenaren antzeko modura.

21. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehen artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa. Horren bidez, hogeita hamaikagarren xedapen iragankorra txertatzen da PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginean. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Hogeita hamaikagarren xedapen iragankorra. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan denbora-egozpena egitea, nekazaritza-aseguruengandik jasotako kalte-ordainena, horien zergatia delarik mahasti eta zereal-laboreetan, fruta-arboletan, olibondoetan, gereziandoetan eta barazkietan galerak nozitzea.

Hurrengo paragrafoan adierazten diren zirkunstantziengatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek zenbatekoak jasotzen badituzte 2023an, mahastietarako nahiz zereal-, koltza-, fruta-arbola-, olibondo- eta baratze-laboreetarako nekazaritza-aseguruak kontrataztearen ondoriozko kalte-ordainekin zerikusia dutenak, zilegi izanen dute erabakitzea, zein ere den aplikatzen duten edo aplikatu izan duten denbora-egozpeneko irizpidea, jasotako zenbateko horien osotasuna 2023ko edo 2024ko zergaldiari egoztea.

Aurreko paragrafoak aipaturiko zirkunstantziak hurrengoak dira:

– 2022ko urrian eta azaroan zehar Nafarroaren lurralde osoan izandako anomalia termikoak eta prezipitazio-falta oso nabarmena, belar-laboreen 2022-2023 kanpaina astindu dutenak.

– 2023ko udaberriko prezipitaziorik eza, zeinaren ondorioz belar-laboreei (zerealak, proteaginosoak, barazkiak, bazkak eta bazka-laboreak) eragin dien lehorreagatik ezbehar-berriemateak aurkeztu baitira.

– Bi astezko ekaitzak, txingor bortitzekin Nafarroa osoan zehar 2023ko maiatzean, eta beste bi astez 2023ko ekainean. Kalteak eta kalte-berriemate ugari eragin zituzten, batik bat zereal-, barazki-, fruta-, mahasti- eta olibondo-laboreek izandako kalteengatik.

– Aurtengo irailaren lehenbiziko astean, berriro ere harri-erauntsidun ekaitz-gertakari zenbait

(Dana barne) izan ziren. Horien ondorioz, kalte-berriemate gehiago aurkeztu ziren, kasu honetan Erriberako herri batzuetan (mahasti-, barazki-, olibondo- eta fruta-laboreetan)".

Zioak: 2023a aurrekaririk gabeko urtea izan da nekazaritza-sektorearentzako istripu-tasari dago-kionez. Hori dela-eta, nekazari askok beren aseguruengandik dirutza kopurutsuak jasoko dituzte, jasan dituzten kalteen ordain gisa. GFehiegizko tributu-ordainarazpenik ez dadin gerta ohiz kanpoko diru-sarrera horiengatik, zerga-ordainketaren geroratze horrek arnasaldia emanen dio nekazaritza-sektoreari, gertaera atipiko horien kudeaketa hobetu ahal izateko eta plangintza egokiagoa egin ahal izateko, bere negozioen eta Nafarroako ekonomiarentzat giltzarri den sektore baten suspertzea eta epe luzeko iraunkortasuna helburu.

BIGARREN ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

22. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Gehitze-zuzenketa, bigarren artikuluan apartatu bat txertatzekoa. Haren bidez, 5. artikuluen 8. zenbakia aldatzen da. Bi B) Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearena. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

b) Subjektu pasiboak entitatearen kapitalean duen partaidetza % 5 izatea, gutxienez, banaka zenbatua, edo % 20, batera zenbaturik ezkontideak, bikote egonkorren erregistroan izena emandako bikotekide egonkorak, aurreko edo ondorengo ahaideek edo laugarren gradurainoko albo-ahai-deek dutenarekin, berdin delarik ahaidetasuna odolkidetasunetik, ezkontza-ahaidetasunetik, bikote egonkorra eratzearen ondoriozko harremanetik edo adopzioetik etortzea."

Zioak: Familia-enpresek denboran zehar izan duten bilakaeraren ondorioz eta haien arrakasta eta jarraitutasuna haien ondarea eta jabetza ondorengo belaunaldiei transmititzearen mende dagoenez, transmisio horren ondorioa da jabetzaren hedapena familiaren adar ezberdinetan zabaltzea. Horregatik, familia-enpresaren salbuespenari eusteko, beharrezkoa gertatzen da ahaidetasun-gradua laugarrenaraino hedatzea, araua belaunaldien arteko eskualdaketa bilakaera horretara egokitzeko. Gipuzkoak bere arauan jadanik txertatuta dauka aurreikuspen hori.

25. ZUZENKETA**EH BILDU****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Gehitze-zuzenketa, bigarren artikuluan apartatu berri bat txertatzekoa, Ondarearen gaineko Zergari buruzkoa:

LIKIDAZIO-OINARRIA, GEHIENEZ ERE (euroak)	KUOTA OSOA (eurotan)	LIKIDAZIO-OINARRIAREN GAINERAKOA, ZENBATERAINO (eurotan)	APLIKATZEKO DEN TASA (ehunekoa)
0,00	0,00	155.511,88	0,16
155.511,88	248,82	155.511,88	0,24
311.023,76	622,04	311.023,76	0,40
622.047,53	1.866,13	622.047,53	0,72
1.244.095,06	6.344,87	1.244.095,06	1,04
2.488.190,11	19.283,46	2.488.190,11	1,36
4.976.380,22	53.122,84	4.976.380,22	1,68
9.952.760,45	136.726,02	1.051.024,05	2,00
11.003.784,50	157.746,50	Hortik gora	3,50"

Zioak: Egoera ekonomikoa dela-eta, komeni da urtebetez luzatzea, mantentzea, dirutza handiei begira Ondarearen gaineko Zergan egin zen aldaketa.

HIRUGARREN ARTIKULUARI
AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

23. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Hirugarren artikuluari atal bat gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeko 25. artikuluari 12. atala gehitzen baitzaio. 2024ko urtarilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldieta-rako eraginarekin.

"12. Konkurtso-prozeduren esparruan unitate produktiboak eskualdatzen direnean, baldin eta eskualdatze horietan aktibo identifikagarrien balioa ken onartutako pasiboen balioa egitearen emaitza handiagoa bada negozio-konbinazioaren kostua baino, eskuratzailerak, zerga-ondorioetarako, batzuk eta besteak baloratu beharko ditu, eta transakzioaren kostua horien guztien artean banatu, beren arrazoizko balio erlatiboan arabera".

Zioak: Egoera ekonomiko konplexuak sortu dituen zailtasunek ugaritu egin dituzte konkurtso-prozedurak enpresen arloan.

"Lehen xedapen gehigarria. Ondarearen gaineko Zergaren 2024ko eskala.

2024ko zergaldian zergaren likidazio-oinarriari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen da erregela berezi berri bat ezartzea konkurtso-prozeduretan unitate produktiboak eskuratzeari dagokionez.

Kontabilitate-arauekin bat etorritik, konkurtso-prozedura batean unitate produktibo bat eskuratzenean, unitate produktiboarekin jasotako aktiboen arrazoizko balioa unitate horrengatik ordaintzen duen prezioa baino handiagoa bada, kontabilitateko diru-sarrera bat sortuko da, aktiboen arrazoizko balioan baloratu behar direlako kontabilitateko ondorioetarako.

Hori dela eta, emaitzen kontuan jasotako elementuen isilbidezko gainbalio batzuekin bat datozen «sarrera» bat aitortzen da, eta, jakina, ez dauka loturarik erabilgarri egon daitezkeen funts monetarioekin.

Zuzenketa-araurik ez badago, orain arte gertatu den bezala, fiskalitatea galga bat izan daiteke konkurtso-prozeduretan ekoizpen-unitateak eskuratzeko, hain zuzen ere gainbalio tazitu horiei dagokien sozietateen gaineko zerga ordaindu behar izatearen ondorioz, eta zaildu egiten du indarrean dagoen konkurtso-legeriaren aitortutako xedea, hau da, lehiakidearen enpresa-jardueraren jarraitutasuna. Neurri hori Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako sozietateen gaineko zergaren foru-arauetan aurreikusita dago.

24. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa; artikulua horren bidez, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeko 37.1 artikulua aldatzen da. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako eraginarekin.

"1. Ez dira zerga-oinarrian sartuko ibilgetu materialaren eta ukiezinaren ondare-elementuen eta ondasun higiezinetan egindako inbertsioen kostu bidezko eskualdatzean lortzen diren errentak edo elementu horien eskualdatzetik lortutako errentak, baldin eta eskualdatuak izan aurretik, saltzeko mantendutako aktibo ez korrontetzat sailkatu badira, entitatearen ustiatze ekonomikoari atxikiak badaude eta, gutxienez ere, urtebetez funtzionamenduan egon badira eskualdatu aurreko hiru urteetan, betiere aipatu eskualdatzeen zenbatekoa berrinbertitu egiten bada lehen aipatu diren ondare-elementu halaber atxikietako edozeinetan, ondare-elementua ematen edo eskura jartzen den egunaren aurreko urtebetetik ondorengo hiru urteetara arteko epean.

Aurreko lerrokadan xedatua gorabehera, eskualdatze edo berrinbertsioaren xede diren ondare-elementuak turismo-automobilak eta horien atoiak, ziklomotorrak, motozikletak edo 23.4 artikuluan aipaturiko ibilgailuak izanez gero, 23.3.e) artikulua aipatzen dituenak bakarrik onartuko dira.

Finantza-errentamenduko kontratuen bidez egindako inbertsioak onartuko dira, nahiz eta, kontabilitate arauak aplikatzeagatik, inbertsio horiek ez kontatu ibilgetu gisa.

Egindako berrinbertsioaren zenbatekoa eskualdaketa guztizkoa baino txikiagoa bada, zerga-oinarrian ez sartze hori aplikatuko zaio aipatu eskualdaketa lortutako errentaren zati proporzionalari bakarrik".

Zioak: Enpresa-etekinak bai ibilgetu materiala bai ukiezina bai higiezinetak inbertsioak eskurtzeko berrinbertituak izan daitezten sustatzeko, zerga-onurak eskualdaketa horietan lortu diren errenta guztiei aplikatu behar zaizkiela jotzen da, 2017ra arte bezala, eta Araban, Gipuzkoan edo Bizkaian ezarrita dagoen bezala.

26. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez 5. apartatua gehitzen baitzaio Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeko 42.1 artikuluari. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

"5º. 48.bis artikuluan ezarritako murriztapena".

Zioak: Aldatu egiten da zergaren likidazio-oinarriaren definizioa, 21. zuzenketa aurreikusitako kapitalizazio-erreserba sartu delako.

27. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 45. artikuluen 2. apartatuaren lehen paragrafoa. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen du eragina.

"2. Aipatu erreserbara bideratutako diru-kopurua 3. apartatuan aipatzen diren ondare-elementuen eskurapenean gauzatuko da, erreserba hornitzeko erabili diren mozkinak zer ekitalditakoak izan eta ekitaldi horren aurreko urtebetetik ekitaldia itxi ondoko bi urteetara bitarteko epean".

Zioak: Neurri honekin lortu nahi da Inbertsioetarako Erreserba Berezia gauzatzeko epeak malgutzea, halako moldez non zergadunek modua izanen baitute aurretiazko inbertsioak egiteko, zeinak joko baitira kasuko aurretiazko inbertsioa egiten den zergaldian –edo, kasua bada, hurrengo hiruretan, eskatzen diren gainerako baldintzak betez gero– lorturiko mozkinen kargura hornituko den Inbertsioetarako Erreserba Bereziaren gauzatzeko gisa. Hori guztia, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 37. artikulua aurreikusten duen berrinbertsioagatik salbuespenak behartzen duen berrinbertsiorako ezartzen diren zertzelada berekin, edo, halaber, Kanaria Uharten zerga-araubideak ezartzen duen Kanarietako Inbertsioetarako Erreserban ondorio horietarako aurreikusten den bezala.

28. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Hirugarren artikuluari apartatu berri bat gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez 48. bis artikulua gehitzen baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legean, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako eraginarekin.

"1. Foru lege honen 51. artikulua 1. apartatuan ezarritako karga-tasan tributatzen duten zergadunek eskubidea izanen dute zerga-oinarrian funts propioen gehikuntzaren zenbatekoaren % 10 murrizteko, betiere baldintza hauek betetzen badiuzte:

a) Erakundearen funts propioen gehikuntzaren zenbatekoa 5 urtez mantentzea, murriztapen horri dagokion zergaldia ixten denetik zenbatzen hasita, salbu eta entitatean kontabilitate-galerak badaude.

b) Murriztapenaren zenbatekoa duen erreserba bat ezartzea. Erreserba hori balantzean agertu beharko da, erabat bereizita eta titulu egokiarekin, eta erabilezin izanen da aurreko letran aurreikusitako epean zehar.

Eragin horietarako, ez da ulertuko erreserba hori erabili denik honako kasu hauetan:

a) Bazkideak edo akziodunak entitatetik bereizteko duen eskubidea erabiltzen duenean.

b) Erreserba osorik edo partzialki kentzen denean, foru lege honen VIII. tituluaren VIII. kapituluaren ezarritako zerga-araubide berezia aplikatzeko zaien eragiketen ondorioz.

c) Entitateak legezko betebeharrak baten ondorioz aplikatu behar duenean erreserba hori.

Apartatu honetan aurreikusitako murriztapen-eskubideak ez du inola ere gaitutako murriztapen horren aurretik zergaldiko zerga-oinarri positiboa zenaren ehuneko 10eko zenbatekoa, behin kendu delarik, kasua bada, 42.1 artikuluan adierazitako murriztapenen zenbatekoa. 1º, 2º, 3º eta 4º.

Hala ere, murrizketa aplikatzeko zerga-oinarri nahikorik ez badago, murrizketa-eskubidea sortu den zergaldia itxi eta hurrengo 2 urteetan amaitzen diren zergaldietan aplikatu ahal izanen dira ordaintzeke dauden zenbatekoak, bai eta dagokion zergaldian artikulua honetan xedatutako aplikatzeagatik legokiokoen murrizketa ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako mugarekin.

2. Funts propioen gehikuntza ekitaldiaren itxieran dauden funts propioen (haren emaitzak

sartu gabe) eta ekitaldiaren hasieran zeuden funts propioen (aurreko ekitaldiko emaitzak sartu gabe) arteko alde positiboaren araberakoa izanen da.

Hala ere, gehikuntza hori zehazteko, honako hauek ez dira zergaldiaren hasierako eta amaierako funts propioetat hartuko:

a) Bazkideen ekarpenak.

b) Kredituak konpentsatzearen ondoriozko kapital-gehikuntzak edo funts propioak.

c) Funts propioen zabalkuntzak, akzio propioekin edo berregituraketakoekin egindako eragiketengatik.

d) Lege- edo estatutu-izaerako erreserbak.

e) Finantza-tresna konposatuen jaulkipen bati dagozkion funts propioak.

f) Zerga honen karga-tasa handitzearen edo murriztearen ondorioz zerga geroratuen aktiboetan gertatutako aldaketei dagozkien funts propioak.

Partida horiek ere ez dira, ezta ere, kontuan hartuko galdagarria den zergaldi bakoitzean funts propioen gehikuntzari eustea erabakitzeko.

3. Artikulu honetan aurreikusitako baldintzak ez betetzeak bidegabeki murriztutako zenbatekoak erregularizatzea ekarriko du, baita dagozkien berandutze-interesak ere".

Zioak: Beharrezkoa da ohartaraztea enpresen finantzaketa erakartzean neutraltasunari eutsi beharraz, luzaroan kanpo finantzaketaren alde egin duen balantza orekatuz. Helburu horretan eragina du, bereziki, kapitalizazio-erreserba berriak.

Era berean, enpresen kapitalizazioa sustatu nahi da, ondare garbia handituz eta, horrekin batera, enpresen saneamendua eta lehiakortasuna sustatuz. Enpresa kapitalizaziorako erreserba hau sortuta kaudimen handiagoz egin nahi zaie aurre krisi ekonomikoei. Nabarmendu behar da Estatuko eta Euskadiko araudietan badagoela erreserba hau.

29. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Hirugarren artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeko 53. artikulua 2. apartatu-ko 3. puntuko b) letra. 2024ko urtarrilaren 1etik

aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“b) Produkzio zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioengatik eta parte hartzeagatik kenkariak, 65., 65. bis eta 65. ter artikuluetan arautuak”.

Zioak: Zuzenketa honen bitartez, asmoa da produkzio zinematografikoetarako eta ikus-entzunezko serieetarako jadanik badauden kenkariaren bitartezko gutxieneko zergapetzearen zergatratamendua berdintzea arte eszeniko eta musikalen zuzeneko ikuskizunek daukatenarekin. Aipaturiko artikulua 24., 25. eta 26. zuzenketen ildotik doaz.

30. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari apartatu bat –64. artikulua aldatzen duena– gehitzeko zuzenketa. A) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeko 4.a) laugarrena. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“Laugarrena. Autokontsumo partekatuko proiektu batean egindako inbertsioa edo energia-komunitate baten inbertsioa bada, kenkariaren ehunekoa 5 puntu gehituko da. Era berean, inbertsio hori egin bada toki administrazio eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkaturiko udalerrri batean, kenkariaren ehunekoa 10 puntutan areagotuko da.

Zioak: Zuzenketa honekin trantsizio energetikoa erraztu nahi da, eta despopulazioaren aurka borrokatu, 10 portzentaje-puntuko gehikuntza emanez despopulazio-arriskuan dagoen udalerrri bateko autokontsumo partekatuko edo energia-komunitate baterako inbertsioko proiektuei.

31. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeko 65. artikulua. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“1.a) Pelikula zinematografikoen eta fikzioko, animaziozko edo dokumentalen arloko ikus-entzunezko beste lan batzuen espainiar ekoizpenean egindako inbertsioek, jendaurreratu aurretik euskarri fisiko bat egitea ahalbidetzen dutenek, ekoizleari eskubidea emanen diote kuota likidoan ehuneko 50eko kenkaria egiteko.

Kenkariaren oinarria, zeina kultura alorrean eskudun den Nafarroako Gobernuaren organoaren ebazpen bidez zehaztuko baita, ekoizlearen inbertsioak osatuko du, baldin eta nafar lurraldean eginiko gastuak inbertsioaren ehuneko 40ra iristen badira. Bestelakoan, kenkari-oinarria izanen da nafar lurraldean eginiko gastuak 0,4rekin zati-tearen emaitza.

Tributuen arloan eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu bidez zehaztuko dira kenkariaren oinarriaren parte izan daitezkeen gastuak, bai eta gastuak nafar lurraldean egintzat hartzeko irizpideak ere.

Kenkari-portzentajea, zeina a) letra honen lehen paragrafoan ezarrita baitago, ehuneko 55ekoa izanen da kenkari-oinarriko lehen milioiarentzat, honako hauen kasuan:

1. Jatorrizko bertsio bakarra euskarazkoa duten ekoizpenak.

2. Emakumezko zuzendariak baizik eginak ez diren ekoizpenak.

3. Ekoizpen dokumentalak.

4. Animazio-ekoizpenak.

5. Inolako film luze zinematografikorik edo fikzio-, animazio- edo dokumental-alorrekoa den ikus-entzunezko serierik zuzendu edo kozuzendu ez duen pertsona baten zuzendaritzapeko ekoizpenak. 6. Ekoizpen jasagarriaren zigilua lortzen duten ekoizpenak, foru agindu bidez garatuko diren baldintzak beterik beren ingurumen-inpaktua minimizatzearen ondorioz lortu ere.

Apartatu honetan araututako kenkariaren zenbatekoa ez da 5 milioi euro baino gehiagokoa izanen.

Ekoizle eragileak kenkaria aplikatu ahalko du halako kasuetan soilik non ikus-entzunezko obraren ekoizlea Espainian egoiliarra ez baita eta ez baitu lurralde horretan jarduten establezimendu iraunkor bidez.

Ekoizle eragileak kenkaria aplikatu egiten duenean, kenkari-oinarria osatuko du zergadunak jasandako ekoizpen-kostuak bakarrik, eta ez da aplikatzekoa izanen foru lege honen 65. d) apartatuan xedatua.

Koprodukzio baten kasuan, apartatu honek aipatutako zenbatekoak koekoizle bakoitzarentzat zehaztuko dira hark koprodukzioan duen partaide-tzaren ehunekoaren arabera.

b) Kenkaria obraren ekoizpena bukatzen den zergaldian sortu dela ulertuko da. Hala eta guztiz ere, ekoizpenak hamabi hilabete baino gehiagoko epea duenean edo entitatearen zergaldi batean baino gehiagotan eragiten duenean, entitateak zilegi izanen du kenkaria aplikatzea ordainketak egin ahala eta ordainketa horien zenbatekoan, kenkaria hasteko datan kenkarietarako indarrean dagoen araudia aplikatuta. Kasu horretan, kenkaria ordainketak egiten diren aldietan sortu dela ulertuko da.

c) Kenkari horri heldu nahi dioten zergadunek proiektuaren azalpen-memoria bat aurkeztu beharko diote Nafarroako Gobernuaren kultura arloko zuzendaritza nagusi eskudunari, eta hark txosten bat emanen du proiektu horrek kenkariaren betekizunak eta baldintzak betetzen ote dituen argitzeko.

Txosten hori eskatzeko edukia eta prozedura zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak zehaztuko ditu.

Txostena eskatu ondoren, zergadunak bere aitorten-likidazioan kontsignatzen ahalko du sortutako kenkaria.

d) Kenkari hau aplikatzeko nahitaezkoa izanen da produkzioak dagokion naziotasun-ziurtagiria eskuratzeko eta, halaber, bere edukia kulturala dela, errealitate kulturalarekiko lotura duela edo Espainian emanaldia duten lan zinematografikoen aniztasun kulturala aberasteari ekarpena egiten diola erakusten duen ziurtagiria. Aipatu agiriak Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak jaulkitakoak izanen dira.

e) Sei hilabeteko epean, dela naziotasun-ziurtagiria eskatu denetik, dela ekoizpen eragilea amaitu denetik, Espainian egoiliar ez diren eta lurralde horretan establezimendu iraunkor bidez jarduten ez duten ekoizleentzat, zergadunak ekoizlearen inbertsioaren justifikazioa aurkeztu beharko dio kulturaren arloko eskumena duen Nafarroako Gobernuaren zuzendaritza nagusiarri, bai eta kenkaria frogatzeko ezarritako gainerako betekizunak betetzearen justifikazioa ere, zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak zehazten dituen baldintzetan.

Aurreko paragrafoan adierazitako epea betetzen ez bada, aplikatutako kenkaria galduko da, eta 76.3 artikuluan ezarritakoaren arabera erregulizatuko da.

Kulturaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiak, kenkaria justifikatzen duen dokumentazioa aurkeztzen denetik 6 hilabeteko epean, ebazpena eman eta jakinaraziko du, zeinean kenkariaren oinarria zehaztuko baita, kontuan hartuta ekoizlearen inbertsioa eta nafar lurraldean eginiko gastuak, edo ekoizpen eragileak izan duen kostua Espainiako lurraldean egoiliar ez izanik lurralde horretan establezimendu iraunkor bidez jarduten ez duten ekoizleentzat.

Ebazpen horretan aitortutako kenkari-oinarria aitortutako kenkari-oinarria baino txikiagoa bada, zergadunak ordaindu beharko ditu, ebazpena jakinarazi den zergaldiko kuotarekin batera, bidegabeki aplikatutako kenkariari dagokion kuota osoa gehi berandutze-interesak.

2 Artikulu honetan arautzen diren kenkariaren zenbatekoa, zergadunak ekoizpen bakoitzarengatik jasotako gainerako laguntzak gehituta, ez da kostu diruz lagungarrien ehuneko 50 baino handiagoa izanen. Halere, muga hori honela handituko da kasu hauetan:

a) Ehuneko 85eraino, film laburrentzat edo 1.000.000 euro baino gutxiagoko ekoizpen-kostua duten proiektuentzat.

b) Ehuneko 80raino, zinema-aretoen bitarteko ustiapen komertzialerako kalifikazioa duten bi film luze baino gehiago zuzendu edo kozuzendu ez dituen pertsona baten zuzendaritzapekoak izanik ekoizpen-aurrekontua 1.500.000 euro baino gehiagokoa ez duten ekoizpenak direnean.

c) Ehuneko 80raino, osorik euskaraz filmatutako ekoizpenak direnean.

d) Ehuneko 80raino, organo eskudunak aitorturiko ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua duten pertsonak bakarrik zuzendutako ekoizpenak direnean.

e) Ehuneko 75eraino, emakumezko zuzendariak bakarrik egindako ekoizpenak direnean.

f) Ehuneko 75eraino, balio kultural eta artistiko berezia izanik finantza-laguntza salbuespenezkoa behar duten ekoizpenen kasuan, foru aginduz nahiz kasuko laguntza-deialdi bidez ezartzen diren irizpideen arabera, bai eta beren ingurumen-inpaktua minimizatzeagatik ekoizpen jasangarriaren zigilua lortzen duten filmaketen kasuan ere, foru aginduz zehaztuko diren baldintzak beterik.

g) Ehuneko 75eraino, dokumentalak direnean.

h) Ehuneko 75eraino, ekoizpen aurrekontua 2.500.000 euro baino gehiagokoa ez duten animaziozko lanak direnean.

i) Ehuneko 60raino, Europar Batasuneko estatu kide batek baino gehiagok finantzatu eta estatu kide bat baino gehiagoko ekoizleen parte-hartzea duten mugaz gaindiko ekoizpenak direnean.

j) Ehuneko 60raino, Iberoamerikako herrialdeen egindako nazioarteko koprodukzioak direnean".

3. Zergadunak aurkeztu beharko du, artikulua honetan ezartzen diren kenkariak edukitzeko aurkeztzen den zergaren autolikidazioarekin batera, jasotako laguntza edo diru-laguntza publikoen zerrenda bat, zehaztu ahal izateko 3. apartatuan aipatzen diren gehieneko laguntzak nola betetzen diren.

4. Europako Batzordearen erabaki baten ondorioz bateraezin deklaraturako legez kanpoko laguntza batez baliatu den zergadunaren kasuan ezin izanen dira artikulua honetan araututako kenkariak aplikatu, harik eta itzuli arte edo blokeatutako kontu batean sartu arte legez kontra jasotako laguntza bateraezin horren zenbateko osoa eta dagozkion errekuperazio-interesak.

5. Artikulu honetan araututako kenkariak aplikatzeko, enpresa ekoizleak honakoa beharko du:

a) Nafarroako filmaketako eta lokalizazioetako material grafikoa eta ikus-entzunezkoa eskueran ipintzea, ez-komertzialki erabilia izan dadin, soil-soilik Nafarroaren ezagutarazpena egiteko (Teaser, trailer, making of, EPK, Nafarroako filmaketako eszenak, argazkiak).

b) Bukaerako kredituetan honako hau gehitzea:

Lehena. "Esta producción se ha acogido al esquema de incentivos fiscales previsto en la Ley Foral del Impuesto de Sociedades de la Comunidad Foral de Navarra" / "Ekoizpen hau Nafarroako Foru Komunitateko Sozietateen gaineko Zergaren Foru Legean aurreikusten diren sustagarri fiskalen babesarekin egin da" / "This production has benefited from the tax deductions included in the Foral Law of Corporate Tax of the Region of Navarra".

Bigarrena. Nafarroako Gobernuaren logotipoa.

6. Tributuei buruzko 13/200 Foru Lege Orokorren 105. artikuluan xedatutakoa gorabehera, artikulua honetan arautzen den kenkaria aplikatzeko eskubidea dutela frogatzen duten zergadunek baimena ematen dute egiaztatuko kenkariari dagozkion datuak hedatzeko, Zinemako obretarako eta ikus-entzunezkoen sektoreko beste produkzio batzuetarako Estatuaren laguntzari buruzko Batzordearen Komunikazioaren 2014/C 198/02 zenbakian aurreikusitakoari jarraikiz, Batzordearen Komunikazioaren 52. apartatuaren 7. zenbakiari dagokionez (2013/C 332/01). Ildo

horretatik, Nafarroako Zerga Ogasunak argitara emanen du aipatu 2014/C 198/02 komunikazioan ezartzen den informazioa, bertan eskatzen diren baldintzetan.

7. Zergadunek kontsultak egiten ahal dizkiote zerga administrazioari, artikulua honetan arautzen diren kenkariaren interpretazioaz eta aplikazioaz, kasu eta proiektu jakin batzuei dagokienez. Aipatu kontsultei emandako erantzunak lotesleak izanen dira.

8. Nafarroako Gobernuak kenkari fiskal hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

Zioak: Nafarroan, ikus-entzunezkoen sektorea haziz joan da azken urteotan, sektoreko balio-katearen katebegi ia guztietaraino iritsi arte. Bestalde, urte-hasieran Espainiako Gobernuak pizgarri fiskal berriak onetsi ditu, Espainia Europar Batasuneko jomuga lehiakorrena izan dadin. Halaber, Bizkaiko eta Arabako diputazioek ere hobetu egin dituzte sektorearentzako pizgarri fiskalak. Lehia fiskaleko ingurune honetan, eta Nafarroako ikus-entzunezkoen industriak modua izan dezan Europa-mailan lehiakor izaten segitzeko eta Foru Komunitatera nazioarteko ekoizpenak erakartzeko, proposatzen da haren jarduerarentzako pizgarri fiskalak hobetzea.

32. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeko 65. bis artikulua. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

"65 bis artikulua. Film zinematografikoak, bestelako ikus-entzunezko lanak eta arte eszeniko nahiz musikalen zuzeneko ikuskizunak ekoizten parte hartzea

1. Zerga honen, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, establezimendu iraunkor baten bitartekaritza jarduten badute, eta parte hartzen badute hala 65.1 artikulua ezarritako kenkarirako eskubidea sortzeko baldintzak betetzen dituzten beste zergadun batzuek eginiko film zinematografikoen edo ikus-entzunezko beste fikzio edo animaziozko lan batzuen nahiz dokumentalen espainiar ekoizpenen –jendaurreratuak izan aurretik euskarri fisiko bat egiteko modua

ematen dutenen— nola arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan, eskubidea izanen dute kuota likidoan kenkari bat egiteko, artikulua honetan ezarritako baldintzekin eta betekizunekin. Kenkari hori bateraezina izanen da, erabat edo partez, aipatutako 65.1 artikulua aplikatzeagatik beste zergadun horiek eskubidez eduki ahalko lituzketen kenkariekin.

Ezin izanen da kenkari hori aplikatu baldin ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak lotura badauka, 28.1. artikulua ezarritako zentzuan, ekoizpena egiten duen zergadunarekin.

2. Ulertuko da zergadun batek parte hartzen duela beste zergadun batek egiten duen ekoizpen baten finantzaketan, mailegu gisa diru kopuruak jartzen dituen osoki edo partzialki ordaintzeko ekoizpenaren kostuak edo, arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen kasuan, horiek ematearen kostuak.

Jarritako diru kopuru horien itzulketa eginen da finantzaketan parte hartzen duen zergadunari kontratuaren eta 65.1 artikulua arabera dagozkion kenkariaren bitartez.

Ez da onartuko ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunaren posizioan subrogatzerik, oinordetza unibertsalaren kasuetan izan ezik.

3. Artikulu honetan ezarritakoa aplikatzeko, nahitaezkoa izanen da bai ekoizpena egiten duen ekoiztetxeak bai haren finantzaketan parte hartzen duen edonork ere finantzaketa-kontratu bat sina dezaten, non, besteak beste, honako xehetasunak jasoko baitira:

a) Ekoizpenean parte hartzen duten zergadunaren identitatea.

b) Ekoizpenaren deskribapena.

c) Arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen kasuan, horiek ekoiztearen eta ematearen aurrekontua, gastuen deskribapen zehatza jasoko duena; batez ere, Nafarroako lurraldean egiten diren gastuena. Halaber adieraziko da haien denbora-egozpena.

d) Ekoizpena finantzatzeko modua, bereizirik adierazita ekoizpena egiten duen zergadunak jartzen dituen kopuruak, finantzaketan parte hartzen duen zergadunak jartzen dituenak eta finantza-erakundearen kredituei, dirulaguntzei eta bestelako laguntza-neurriei dagozkienak.

e) Erregelamenduz ezartzen diren gainerako gaiak.

4. Ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duten zergadunek ezin izanen dute eskuratu jabetza intelektualeko eskubiderik, ez eta bestelakorik ere, proiektu horren emaitzei dagokienez; izan ere, haien jabetza betiere ekoizlearena izan beharko da. Aipatu artikulua ez da aplikatuko Espainian bizi ez diren eta lurralde horretan establezimendu iraunkor baten bidez jarduten ez duten ekoizleek egindako ekoizpen exekutiboaren kasuan.

5. Zergadunek artikulua honetan ezartzen den araubidea aplikatzearen aldeko hautua egiten dutenean, ekoizleak ez du eskubiderik izanen 65.1. edo 65. ter artikuluan ezarritako kenkariari dagokien guztizko zenbatekoa edo zenbateko partziala aplikatzeko, eta, horren ordean, ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak eskubidea izanen du bere autolikidazioan frogatzeko aipatu artikulua horretan ezarritako kenkaria, eta kenkari horren zenbatekoa zehaztuko da ekoizleari aplikatuko zitzaizkioken baldintza beretan.

Aurrekoa gorabehera, ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak ezin izanen du kenkari handiagorik aplikatu zera baina, ekoizpena finantzatze aldera berak ordaindu dituen diru-kopuruak bider 1,20 egitearen emaitzari dagokion zenbatekoa baina, kuota-terminoetan. Ekoizleak gaindikina aplikatzen ahalko du.

6. Ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak urtero aplikatuko du artikulua honetan ezartzen den kenkaria, zergaldi bakoitzean egin dituen ekarpenen arabera, baita zergaldi bakoitzean ekoizleak egiaztatzen duen 65. eta 65. ter artikuluko kenkariaren arabera ere.

Hala ere, ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak zergaldian ordaintzen baditu ekoizleak egiaztatzen duena baina kenkari handiagoa ahalbidetuko zuketuen kopuruak, gaindikina ondorengo zergaldietan aplikatzen ahalko da, aurreko paragrafoan ezartzen denarekin bat etorritik.

7. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioz aplikatzen diren kenkariak handiagoak badira zergadunak zinema ekoizpenen, ikus-entzunezko serieen edo arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan inbertitutako zenbatekoak baina, haren zerga-oinarrian sartuko da aplikatutako kenkariaren eta ekoizpen horiek finantzatzeko ordaindutako diru-kopuruaren arteko alde positiboa.

8. Artikulu honetako kenkariak lortu nahi dituzten zergadunek 3. apartatuak aipatzen duen finantzaketa-kontratu aurkeztu beharko dute tributu administrazioari egindako komunikazio batean, ekoizleak eta ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duenak izenpetua, kenkaria sortzen den

zergaldia amaitu baino lehenago, erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan”.

Zioak: Arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunetara hedatzen da zerga-pizgarria, lehendik badagoena film zinematografikoen edo ikus-entzunezko beste fikzio edo animaziozko lan batzuen nahiz dokumentalen ekoizpenak finantzatzen dituzten zergadunentzat. Ekoizpen mota horiek ikus-entzunezko industriaren sektore desberdinetan duten trakzio gaitasuna indartzeaz gain, pizgarri horiek lagundu egiten dute Nafarroak kultura-dinamismo handiago izan dezan, sinergia eta kanpo-eragin positiboekin.

33. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeko 65. ter artikulua. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“65. ter artikulua. Kenkaria, arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunetan inbertsioak egiteagatik

b. Arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen ekoizpenean eta erakusketan egindako gastuek ehuneko 30eko kenkaria izanen dute kuota likidoan. Ehuneko 40ko kenkaria aplikatuko da nazioarteko bira baten parte den ikuskizuna bada.

Kenkariaren oinarria jarduera horietan sortutako zuzeneko kostuek (artistikoak, teknikoak eta sustapenaren arlokoak) osatuko dute.

Zergaldi bakoitzean sortutako kenkaria ezin izanen da izan 1.000.000 eurotik gorakoa zergadun bakoitzeko.

2. Kenkari hau aplikatu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Zergadunak Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalaren ziurtagiri bat lortu izana horretarako, ministro-agindu bidez ezartzen diren baldintzetan.

b) Kenkarirako eskubidea sortzen den zergaldian jarduera horiek gauzatzetik lortutako etekinetatik zergadunak gutxienez ehuneko 50 erabiltzea apartatu honetan aurreikusitako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten jarduerak egiteko. Betebehar hori betetzeko epea etekin horiek lortu diren zergaldiaren hasieratik zergaldi hori itxi ondorengo 4 urteetara bitartekoa izanen da”.

Zioak: Zerga-tratua hobetzeak, Nafarroara nazioarteko ikuskizun garrantzitsu gehiago erakartzeko asmoz, Foru Komunitatearen kultura- eta entretenimendu-eskaintza aberasten lagunduko luke, eta, horrez gain, eragin nabarmena izango luke Nafarroaren irudian eta ekonomian. Garrantzi handiko ekitaldien etorrera erraztuta, Nafarroak lehen mailako kultura- eta turismo-helmuga izatearen posizionamendua lortuko luke, eta beste toki batzuetako ikusleak eta bisitariak erakarriko lituzke.

34. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez 66. bis artikulua gehitzen baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legean. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“66. bis artikulua. Enplegua sortzeagatik kenkaria.

1. Zergaldian zehar plantillaren batezbestekoak izandako gehikuntzagaratik 2.500 euroko kenkaria aplikatuko da kuota likidoan, pertsona eta urte bakoitzeko, lan-kontratua mugagabea bada eta 27.000 euro baino gehiagoko soldata badu ekitaldian. Plantilla-gehikuntza hori neurtuko da zergaldia hasi aurre-aurreko hamabi hilabeteetan kontratu mota hori zeukan plantillaren batezbestekoarekin alderatuta. Ondorio horietarako, entitate sortu berrien kasuan zero pertsona kontatuko dira entitate-sorreraren aurreko denborari dagokionez.

Plantillaren batezbestekoaren gehikuntza kalkulatzeko, bakar-bakarrik zenbatuko da zenbat pertsona/urte dauden lan-kontratua mugagabearekin eta 27.000 euro baino gehiagoko soldatarekin. Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, benetan lan egindako orduen araberako proportzioan kontatuko dira.

Gutzizko kenkariak ez du gaudituko entitatearen guztizko plantillaren batezbestekoak zergaldi horretan zehar izandako pertsona-kopuru/urte gehikuntzari legokiokeena, edozein izanik ere haiek kontratatzeke modua.

2. Baldin eta, aurreko zergaldiko plantilla osoaren batezbestekoa mantenduz, plantillan lan-kontratua mugagabea eta 27.000 euro baino gehiagoko soldata dutenen batezbestekoa handitzen bada eta gehikuntza hori entitatearen plantilla osoaren batezbestekoaren gehikuntza baino handiagoa

bada, pertsona eta urte bakoitzeko 1.000 euroko kenkaria aplikatuko da bi gehikuntza horien arteko diferentziagatik.

Baldin eta, aurreko ekitaldiko plantilla osoaren batezbestekoa murriztuz, plantillan lan-kontratu mugagabea izanik 27.000 euro baino gehiagoko soldata dutenen batezbestekoa handitzen bada, aurreko paragrafoan aipatu kenkaria aplikatuko zaio aipatu den gehikuntzaren eta guztizko plantillaren batezbestekoaren murrizketaren artean kasua bada suertatzen den diferentzia positiboari.

3. 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitako kenkariak honako hauek izanen dira:

a) 5.000 eta 2.000 eurokoak izanen dira, hurrenez hurren, emakume langileen plantillako batezbestekoa handitzen duen pertsona eta urte bakoitzeko.

b) 6.800 eta 3.200 eurokoak, hurrenez hurren, desgaitasuna duten langileen plantillako batezbestekoa handitzen duen pertsona eta urte bakoitzeko, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bateginean xedatutakoarekin bat, zeina azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsi baitzen.

4. Sozietate berriak sortze aldera sozietate eta enpresa indibidualak bategiteak, zatitzeak eta eraldatzeak, eta oro har, enpresen ondorengotza edo jarraipenek, ez dute, beren horretan, enplegua sortzeagatik kenkaria aplikatzeko biderik emanen.

5. Entitatea Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aipatutako sozietate talde bateko kide denean, alde batera utzita egoitza non den eta urteko kontu bateginak aurkeztu beharra, kenkariaren oinarria finkatzean kontuan hartuko da talde horretako kide diren entitateen egoera osoa.

Irizpide hori bera aplikatuko da baldin eta pertsona fisiko bat, bera bakarrik edo ahaide dituen beste pertsona fisiko batzuekin elkar hartuta (ahai-deak zuzeneko nahiz alboko lerrokoak izan, odol bidezkoak nahiz ezkontza bidezkoak, bigarren graduraino, bigarrena barne), kide dituen beste entitate batzuekiko gertatzen bada Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen kasueta-koren batean.

6. Aurreko apartatuetako kenkariak bateraezina dira elkarren artean.

7. Aurreko 1., 2. eta 6. apartatuetan ezarritakoa aplikatzeko, alderatuko dira lan-kontratu mugagabea duten plantillak eta zergaldi bakoit-

tzean kenkari-aplikaziorako kontuan hartutako zenbatekoa baino soldata handiagoa dutenak”.

Zioak: Enplegua sustatzea bereziki garrantzitsua da ziklo ekonomikoaren oraingo fasean; eta, beraz, ez litzateke aurreztu beharko lanpostu-sorrerari bultzada emateko beharrezkoa den ezein esfortzu edo neurri.

Hori dela eta, neurri honen bidez berreskuratu nahi da EAeko hiru lurralde historikoetako eta lurralde erkideko araudian jasota dagoen pizgarri fiskal bat, zeina enplegu-emaleei aplikatzeko baitzaie pertsonen kontratatze mugagabea sustatzeko xedez, arreta berezia jarririk desgaitasuna duten pertsonen kontratazioan.

35. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren hirugarren artikuluari zortzi bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

Hirugarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Zortzi bis. 92.1 artikulua, paragrafo bat gehitzea; 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak

“93. artikuluan aurreikusitako hobariak aplikatzeko, ulertuko da ezen Nafarroan Etxebizitza Iza-teko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikuluan eta Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 77. artikuluan araututako sozietate publiko instrumentalaren bitartekotzazko errentamenduari eskainitako etxebizitzetatik lorturiko errentak eratorriak direla etxebizitza-errentamenduko jarduera ekonomiko batean ariztetik”.

Zioak: Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen IV. kapituluak jasotzen du etxebizitza-errentamenduan diharduten entitateen araubidea. 92. artikulua ezartzen du zer betekizun bete behar dituzten entitate horiek, tributu-araubide horri heltzeko.

93. artikulua jasotzen dituen hobariak eskuratzeko ahalbidetzen duen oinarritzko elementua da entitatearen jardura ekonomiko nagusia etxebizitzaren errentamendua izatea, eta hobari horiek aplikatuko zaizkie 92. artikuluko betekizunak betetzen

dituzten etxebizitzaren errentamendutik eratorritako errentei.

Premisa horiek kontuan hartuta, Nasuvinsaren bitartez etxebizitzak alokatze aldera entitate batek etxebizitzak eskaintzen baditu, hortik eratorritako errentei ezingo litzaieke aplikatu araubide berezi hau, Nasuvinsari etxebizitzak lagatzea ezin baita hartu etxebizitzak alokatzearen jarduera ekonomikotzat (Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren ebazpena, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak berretsia).

Alokairu-poltsa handitzeko interesa eta beharra kontuan hartuta, bai eta bitartekotzazko errentamenduen ondoriozko errenten kasuan kapital higiezinaren etekin garbia murrizteko aukera ezarri zuen PFEZaren aldaketa ere, komenigarria dirudi entitateek ere poltsa horretan etxebizitzak eskain ditzaten sustatzea.

Horretarako, ezartzen da ezen, entitateek aipatu den zerga-araubidea aplikatu ahal izateko gainerako baldintzak betetzen badituzte, ulertuko dela, hobariak aplikatzeko ondorio hutsetarako, errenten jatorria dela etxebizitza-errentamenduko jarduera ekonomiko batean aritzea.

36. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 116. artikularen 2. apartatua. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

"2. Ondorengo letretan aipatzen diren eragiketarik zatiketatzat joko dira:

a) Entitate batek, bere desegite likidaziogabearen ondorioz, bere ondare sozial guztia bi zati edo gehiagotan zatitu, eta zati hauek aurretik badiren edo berriak diren beste bi entitateri edo gehiagori eskualdatzen dizkienean, betiere eskualdatze hori egiten denean haien bazkideei, proportzionaltasun-irizpidearen arabera, ekarpena hartzen duten beste entitate horien kapital sozialaren balore adierazgarriak emanez, gehi, kasua bada, diruzko konpentsazio bat, balio nominalaren % 10 baino handiagoa ez dena edo, balio nominalik ezean, balio horien balio nominalaren balioidea den bat, kontabilitatetik ondorioztatzen denaren arabera.

b) Entitate batek bere sozietate-ondarearen parte bat edo batzuk, jarduera-adarrak osatzen dituztenak, bereizi eta blokean eskualdatzen dizkienean aurretik dauden edo sortu berriak diren entitate bati edo gehiagori, halako moldez non eskualdatzaileak bere ondarean mantentzen baititu, gutxienez, jarduera-adar bat edo beste entitate batzuen kapitaleko partaidetzak, entitate horien kapital sozialaren gehiengoaren ematen diotenak, eta, horren trukean, eskuratzaile diren entitateen kapital sozialaren balore adierazgarriak jasotzen dituzte, zeinak bere bazkideei esleitu beharko baitzaizkie bakoitzaren partaidetzaren proportzioan, sozietate-kapitala eta erreserbak behar den heinean murriztuz; eta, kasua bada, diru-konpentsazio bat, a) letran ezarritakoaren arabera.

c) Entitate batek bereizten duenean bere ondare sozialaren zati bat, osatuta dagoena beste entitate batzuen kapital sozialaren gehiengoaren ematen duten partaidetzekin, eta blokean eskualdatzen dizkienean aurretik dauden edo sortu berriak diren beste entitate bati edo gehiagori, eta bere ondarean, gutxienez, antzeko partaidetzak mantentzen baditu beste entitate baten edo batzuen kapitalean, edo, bestela, jarduera-adar bat; eta, horren trukean, entitate horien kapital sozialaren balore adierazgarriak jasotzen dituzte, bere bazkideei haien partaidetzaren proportzioan esleitu beharrek, kapital soziala eta erreserbak behar den neurrian murriztuz; eta, hala bada, diru-konpentsazio bat, a) letran ezarritakoaren arabera.

Zioak: Neurri horrekin Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 116.2. artikularen 2. apartatuan jasotako betekizuna ezabatu nahi da; izan ere, betekizun horrek exijitzen zuenarekin bat, desegiten den entitateko bazkideei baloreak desegiten den sozietatean zuten proportzio ezberdinean emateko, beharrezkoa da sozietate onuradunek eskuratutako ondareak jarduera-adarrak izatea. Eskakizun hori kentzearen helburua da Europako Batzordeak Espainiako Erresumari 2020ko martxoan igorritako irizpen arrazoituan zetorren eskaria betetzea, bertan eskatzen baitzen Espainiako arauditik kentzea hori bezalako baldintzak, desegokiro murrizten dutelako geroratzeko fiskalaren araubidea aplikatzea zatiketa-eragiketetan, azken horiek xede dutenean berrantolatzea ezen enpresa-berrantolatetari –esate baterako fusioak edo zatiketak– ez diezaiotela berregituratze-unean trabarik egin zerga-arloko arazoek.

Ildo horretatik, zatitutako sozietateko akziodunek zatiketaren ondoriozko sozietate guztietan akzio-proportzio bera jasotzen ez dutenean geroratze fiskala ez baimentzearen exijentzia, salbu eta aktibo eskuratuak jarduera-adarrak badi-

ra, Europar Batasuneko ordenamenduaren kontra neurri murriztailea da.

Aldaketa horrek, beraz, aukera ematen du Europako Batzordearen eskaera betetzeko, jurisprudentziak berriki jasotzen duen bezala eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako sozietateen gaineko zergaren foru-araue-tan 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin txertaturiko aldaketen ildotik.

37. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari apartatu bat gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baitira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 3. eta 4. apartatuak. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako eraginarekin.

“3. Pertsona edo entitate ekintzaileen onura fiskalak:

a) Ez dute izanen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatua egin beharrik.

b) Zerga Administrazioak baimena emanen du, alde zurreko eskaera eginik, bermerik aurkeztu behar izan gabe eta berandutze-interesa sortu gabe, bai sozietateen gaineko zergan bai pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, enpresa edo lanbide jarduera dela-eta sartu beharreko kuota geroratzeko. Kuota geroratuaren ordainketa noiz egin beharko da eta zergaldi bakoitzari dagokion aitortpen-likidazioa aurkezteko epea bukatzen den egunaren ondoko hamabi hilabeteetan.

c) Zerga Administrazioak baimena emanen du, alde zurreko eskaera eginik, bermerik aurkeztu behar izan gabe eta berandutze-interesa sortu gabe, beren langileei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan egindako konturako atxikipenak geroratzeko. Geroratuak kopuruen sarrera hurrengo urteko otsaileko azken eguna baino lehen egin beharko da.

d) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek % 70 murriz dezakete beren enpresa edo lanbide jardueraren errendimendu garbia, hori positiboa den lehen eta bigarren zergaldietan, baldin eta zergaldi horiek 5 urteko epearen barnean badaude jarduera hasi zenetik. Murriztapen hori aplikatzeko, zuzeneko zenbatespenaren araubidean zehaztu behar da enpresa edo lanbide jardueraren etekin garbia.

e) Sozietateen gaineko zergaren zergadunek ehuneko 70 murriz dezakete zerga-oinarria, hori positiboa den lehen eta bigarren zergaldietan, baldin eta zergaldi horiek 5 urteko epearen barnean badaude jarduera hasi zenetik. Jarduera ekonomiko bat garatzetik heldu den zerga-oinarriaren zatiari baino ez zaio aplikatuko murriztapen hori.

f) Foru lege honen 58. artikuluko kenkaria aplikatzea, baita 59.b) artikulua aipatzen duen baldintza betetzen ez dutenean ere.

g) Jarduera berritzaile bat egiten badute edo bereziki sustatu gogo den sektore batekoa edo espezializazio adimentsukoa:

1) Foru lege honen 58. artikuluko kenkaria aplikatzea, ehuneko 5 puntu areagotuta.

2) 78.2 artikuluan aipatzen diren ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jarduerak egiteagatik kenkariari dagokion itzulketa espezifikoaren muga. 2) 100.000 euro handituko da.

h) Foru Lege honen 43. artikuluan 1. apartatuan ezarritako muga ez zaie aplikatuko hirugarren xedapen gehigarri honetan jasotako entitate ekintzaileei, likidazio-oinarri positiboa sortzen den lehenengo 3 zergaldietan, baldin eta aipatutako baldintza betetzen jarraitzen badute.

i) Sozietateen gaineko Zergako zergadunek, hirugarren xedapen gehigarri honen 1. apartatuan xedatutakoaren arabera entitate ekintzaileetat jotz badaude, ehuneko hamarreko karga-tasa ordainduko dute likidazio-oinarria positiboa den lehenengo zergaldian eta hurrengo hiruretan, baldin eta aipatutako baldintza betetzen jarraitzen badute”.

4. Entitate ekintzaileetan inbertitzen duten pertsonen edo entitateen onura fiskalak.

a) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek eta sozietateen gaineko zergari lotutako zergadunek % 40ko kenkaria egiten ahaliko dute entitate ekintzaileen kapitala eratu edo handitzetik heltzen diren akzioen edo partaidetzen harpidetza egitean ordaintzen duten diru kopuruan, baldintza hauek betetzen badira:

i) Inbertsioa jasotzen duen entitateak Nafarroako foru araudia aplikatu behar du sozietateen gaineko zergan.

ii) Pertsona fisikoa den zergadunaren partaidetza ezin da izan, zergaldiaren egun bakar batean ere, inbertsioaren xedeko sozietatearen kapital sozialaren edo boto-eskubideen ehuneko 40 baino gehiagokoa. Horretarako, kontuan hartuko da, orobat, subjektu pasiboaren ezkontidearen partaidetza eta haren odol edo ezkontza bidezko zuzeneko edo alboko ahaideena, hirugarren mai-

lara arte, hori barne. Partaidetzaren muga hori hiru urtez bete beharko da gutxienez, sozietatea eratzeko edo kapitala handitzeko erabakia eraginkor den egunetik aurrera.

iii) Zergadunaren partaidetza, hura pertsona juridikoa denean, bere talde berean dauden gainerrako sozietateen partaidetzarekin batuta (Merkataritzari buruzko Kodearen 42. artikulua zentzuan), kontuan hartu gabe entitateen egoitza eta urteko kontu bateratuak egin beharra, ezin da izan inbertsioaren xedeko sozietatearen botoeskubideen edo kapital sozialaren ehuneko 40 baino gehiagokoa zergaldiko ezein egunetan. Partaidetzaren muga hori hiru urtez bete beharko da gutxienez, sozietatea eratzeko edo kapitala handitzeko erabakiak eraginkortasuna hartzen duen egunetik aurrera.

iv) Zergadunak, pertsona fisikoa bada, parte har dezake bere inbertsioa hartu duen sozietatearen administrazio kontseiluan, baina ezin du inola ere hango exekuzio edo zuzendaritza eginkizunik bereganatu. Laneko edo lanbideko harremanik ere ezin du izan entitatearekin inbertsioaren aldiaren eta hurrengo bietan.

v) Zergadunaren ondarean mantendu behar dira akzioak edo partaidetzak, gutxienez 3 urteko epean. Epe horretan, entitateak jarraitu behar du jardura ekonomiko bat gauzatzen.

vi) Kenkari hori aplikatzeko, Zerga Administrazioak alde aurretik egiaztatu behar du aurreko baldintzak betetzen direla eta, inbertsioa zer entitatean egiten den, horrexek erregistraturik egon behar du 6. apartatuak araututako pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroan. Erregistroan inskribatzen den egunetik aurrera eta egun horren aurreko 6 hilabetearen egindako inbertsioek izan dezakete kenkaria.

Harpidetutako akzioak edo partaidetzak baldin badagozkie jardura berritzaile bat egiten duten entitateei edo bereziki sustatu gogo den sektore bateko edo espezializazio adimentsuko entitateei, kenkaria izanen da egindako diru-ekarpenaren zenbatekoaren ehuneko 45ekoa.

vii) Kenkariaren gehieneko zenbatekoa 80.000 eurokoa izanen da zergaldiko. Zenbateko hori 130.000 eurokoa izatera pasako da, inbertsioa zer entitatean egiten den, horrexek jardura berritzaile bat egiten badu, edo bereziki sustatu gogo den sektore batean sartuta badago, edo espezializazio adimentsukoa bada. Kuota-askitasunik eza gatik kenkaririk gabe geratutako zenbatekoak kenkaria izan dezake hurrengo 15 zergaldietan.

b) Salbuetsita egonen dira gauzako lanordainsariak, sozietateek beren akzio edo partaidetzak jarduneko langileei doan edo merkaturako prezio normala baino merkeago ematearen ondorioz sortutakoak, baldin eta xedapen gehigarri honetan jasotakoari jarraikiz ekintzailetzat jotako entitateetako langileei aurretiaz emandako akzioen edo partaidetzen gaineko eros-aukera baliatzearen ondorio badira, eta langile bakoitzari guztira emandakoaren zenbatekoa ez bada 50.000 eurotik gorakoa urtean.

c) Kargatik salbuesten ahalko dira xedapen gehigarri honetan araututako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten entitate ekintzaileetako akzioak eta partaidetzak eskualdatzeagatik lortutako ondare gehikuntzak, baldin eta haien zenbateko osoa berrinbertitzen bada kenkari hori aplikatzeko eskubidea ematen duten beste entitate ekintzaile batzuetako akzioak edo partaidetzak eskuratzeko.

Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada eskualdaketa jasotako guztizkoa baino, zergapetzetik salbuetsiko da berrinbertitutako zenbatekoari dagokion ondare gehikuntza lortuaren zati proportzionala bakarrik. Letra honetan xedatutako zerga-onura bateraezina izanen da, berrinbertsioa gauzatzen den akzio edo partaidetza eta zenbateko berberetarako, xedapen gehigarri honetan araututako kenkariarekin”.

Zioak: Enpresa emergenteen ekosistema sustatzeko Espainiako Gobernuaren legearen ildotik, eta ekintzailetzari laguntzeko, talentua erakartzeko eta eremu berritzaileenetan enpresa emergente berriak sortzeko, bizkorgarriak ezartzen dira Nafarroa erakargarria izan dadin enpresa horiek kokatzeko eta horrek dakarren talentua erakartzeko, langileentzako pizgarrien bidez.

38. ZUZENKETA

EH BILDU

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Gehitze-zuzenketa, hirugarren artikuluan hamargarren apartatu bat txertatzekoa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa:

Hamar. Hamazazpigarren xedapen gehigarria, errubrika:

“Hamazazpigarren xedapen gehigarria. 2024an hasten diren zergaldietan likidazio oinarri negatiboak murrizteko mugak”.

Zioak: Egoera ekonomikoa eta enpresa-mozkinak ikusita, komenigarria da beste urte batez luzatzea enpresek aurreko ekitaldietako likidazio-oina-

ri negatiboak aplikatzearen ondoriozko murrizketen mugak.

LAUGARREN ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

39. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Laugarren artikuluari beste apartatu bat gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testu bateginaren 11.c artikulua b') letra. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“b’) Eskuraketa mantentzea kausatzailea hil eta hurrengo bost urteetan, salbu eta eskurazzailea epe horren barruan hiltzen bada edo enpresa edo erakundea konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzen bada”.

Zioak: Gaur egun, ez da mantentze-betebeharraren salbuespen gisa jasotzen jarauntsian jasotako negozioa edo sozietatea konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzea; beraz, kasu horretan, uler daiteke eskuraketaren salbueste-egoera ekarri zuten baldintzak ez direla bete. Beharrezkoa da egoera hori mantentze-betebeharraren salbuespen gisa aurreikustea.

BOSGARREN ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

40. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Bosgarren artikuluari beste apartatu bat gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez aldatzen baita Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Testu Bateginaren 4. artikulua 1. zenbakia. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“1. Aurreko artikuluan zerrendatutako eragiketak ez dira titulu honetan araututako “kostu bidezko ondare eskualdaketak” izanen, enpresaburu edo profesional batek bere enpresa edo lanbide jardueran gauzatu badu ondasun entrega edo zerbitzu egitea eta, edozein kasutan, balio erantsiaren gaineko zerga ordaindu behar duten ondasun entregak edo zerbitzu egiteak badira. Hala ere, zerga-kontzeptu horrengatik ordaindu behar dute ondasun higiezinaren entregak edo errenta-

menduek, baita horien gaineko erabiltze eta lupertze eskubide errealeen eraketak edo eskualdaketak ere, baldin eta eragiketa horiek balio erantsiaren zergatik salbuespena badaude, salbu subjektu pasiboak salbuespen horri uko egiten badio zergaren foru legean jasotako inguruabar eta baldintzekin. Enpresa edo lanbide ondarearen parte diren elementu gorpuzdunen edo, kasua bada, gorpuzgabeen multzo baten eskualdaketa sartzen diren higiezinaren entregak ere ordaindu behar dute, baldin eta elementu horiek berez enpresa edo lanbide jarduera bat garatzeko gauza den unitate ekonomiko autonomo bat osatzen badute, betiere bere inguruabarrengatik ondare horren eskualdaketak balio erantsiaren gaineko zerga ordaindu behar ez badu.

Apartatu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatu konkurtso-prozeduren barruan egindako unitate produktiboen eskualdaketei, baldin eta eskurazzailea bada unitate produktibo horietan sartutako higiezinaren emateei dagokien kuotan kenkaria ezartzeko eskubidea duen balio erantsiaren gaineko zergaren zergaduna, unitate horiek zerga horri lotuta eta zergatik salbuespen gabe daudenean».

Zioak: Sozietateen gaineko zergan, konkurtsoan unitate produktiboak eskuratzeari dagokionez proposatutako zuzenketaren (16. zk.) ildotik, aurreikusi behar da OEEJDZko kostu bidezko ondare-eskualdaketen modalitatean ez zergapeztea konkurtso-prozeduretan eskuratutako unitate produktiboetan sartutako higiezinaren eskuraketa. Neurri hori Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako OEEJDZren foru-arauetan aurreikusita dago.

SEIGARREN ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

41. ZUZENKETA

EH BILDU TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Seigarren artikuluari beste apartatu bat gehitzeko zuzenketa, zeinaren bidez xedapen gehigarri berri bat eransten baita:

Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen 37.1. artikulua 3. apartatuko c') letrari dagokionez seigarren artikulua bigarren apartatua aurreikusitako aldaketak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu efektuak”.

Zioak: Saihestu nahi da horrelako hondakinak (geldoak) entregatzen dituzten subjektu pasiboek

tonako 15 euro ordaindu behar izan ditzaten 2023an, eta Foru Legea nahitaez bete beharreko estatu-araudira egokitzeko aldatua izan aurretik ordaintzen zena ordain dezaten 2024tik aurrera, Hitzarmen Ekonomikoan jaso zen bezala.

XEDAPEN GEHIGARRIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

42. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuari xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

“Bigarren xedapen gehigarria. Zerga-lehiakortasuna hobetzeko neurri fiskalak hedatzea

Proiektu honetan azaldutako neurriak hedatu eginen dira, betiere Nafarroako Foru Komunitatearen zerga-lehiakortasuna berreskuratu eta bermatzeko irizpidearekin bat etorritik, gaur egungo ziurgabetasun makroekonomikoak argitu ondoren, batez ere oraindik bizi dugun ingurune inflazionistari buruzkoak eta arau fiskalen eredu berriari buruzkoak, zeinak ordeztuko baitu Europar Batasunean indarrean egon zena, Egonkortasun eta Hazkunderako Itunaren esparruan, harik eta COVID-19aren pandemiaren krisiak hura etetea gomendatu zuen arte”.

Zioak: Nafarroako Foru Komunitateak zerga-lehiakortasuna galdu du azken bi legegintzaldi hauetan, zenbait tribututan presio fiskala handitu baita. Zerga-lehiakortasunaren beste eskualde eta autonomia-erkidego batzuekiko jaitsiera horrek ahuldu egiten du Nafarroak duen gaitasuna inbertsioak, produkzio-proiektuak eta talentua erakartzeko, atxikitze eta sortzeko. Zuzendu ezean, jaitsiera pilatzen joanen da, eta denboraren poderioz gero eta zailagoa izanen da hori leheneratzea.

ZIOEN AZALPENARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

43. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuaren zioen azalpenaren bigarren, seigarren eta berrogeita hamahirugarren paragrafoak aldatzeko zuzenketa.

“Arauen aldaketen helburua da, alde batetik, inflazio-tasa handia duen egungo testuinguru ekonomikoari erantzutea, eta, bestetik, doikuntza teknikoak egitea, Zerga Administrazioak kontrol handiagoa eta kudeaketa hobea izan dezan; azken helburua eta asmo iraunkorra da zerga arloko ekitatea eta iruzur fiskalaren aurkako borroka hobetzea. Hori guztia, kalterik egin gabe Nafarroak azken urteotan galdu duen zerga-lehiakortasuna berreskuratzeko beharri; hain zuzen, horretarako neurri berriak hartu beharko dira Europako arau berriak zehaztuko dituen esparru fiskala argitu ahala”.

“Foru legearen egitura hauxe da: hamaika artikulua, bi xedapen gehigarri eta bost azken xedapen”.

“Lehen xedapen gehigarriak berariazko zerga-pizgarri batzuk jasotzen ditu, 2024an eta 2025ean aplikatuko direnak, “Santiago Ramón y Cajal ikerketa urtea 2022” aparteko interes publikoko gertakariarekin loturiko programa eta jardueren finantzaketan parte hartzeagatik. Hala, uztailaren 31ko PCM/742/2022 Aginduaren bidez sortu zen departamentuarterako kide anitzeko organoak (hots, “Santiago Ramón y Cajal ikerketa urtea 2022” AIPGaren kudeatzaileak) onetsitako programa eta jardueretan ekarpenak egiten dituztenek kultura mezenasgorako pizgarriak aplikatzen ahalko dituzte; Fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateen zerga-araubide bereziko xedapenen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien testu bateginean ezarrita daude horiek. Gainera, aipatutako programa eta jarduerak lehentasunezkoztat joko dira irabazi-asmorik gabeko entitateek egiten badituzte eta, horrez gain, entitate horiek aipatu testu bategineko I. tituluko zerga-araubidea edo haren baliokidea den beste Zerga Administrazio baten zerga-araubidea aplikatzen dutenean eta, hala, ehuneko bost puntu goratuko dira aplikatu beharreko kenkarien ehunekoak eta mugak. Bigarren xedapen gehigarriak Nafarroak gainerako autonomia-erkidegoekiko galdu duen zerga-lehiakortasuna neurri berriekin bilatzeko beharra jasotzen du, kontuan hartuta neurriak Europako zerga-arau berrien azken diseinuaren inguruan oraindik ere badirauren ziurgabetasuna ezabatzearen baldintzapean egonen direla.

Zioak: Nafarroako Foru Komunitateak zerga-lehiakortasuna galdu du azken bi legegintzaldi hauetan, zenbait tribututan presio fiskala handitu baita. Beste eskualde eta autonomia-erkidego batzuekiko zerga-lehiakortasunaren jaitsiera horrek ahuldu egiten du Nafarroak duen gaitasuna inbertsioak, produkzio-proiektuak eta talentua erakartzeko, atxikitze eta sortzeko. Zuzendu ezean, jaitsiera pilatzen joanen da, eta denboraren poderioz gero eta zailagoa izanen da hori leheneratzea.

